



ARGIA

ADUR RAMÍREZ DE ALDA

ALTSASUKO AUZIPETUA

“ESPAINIAKO ESTATUAREN
INTERES POLITIKOEI BEGIRA,
GAIZKI ATERA ZAIE.

Herriaren garaipena izan da”

23-27. orriak

#2.723 | 2021 / 03 / 07 | 3,90 €



**Elon Musk
espazioa
kolonizatzen**

10 | INTERNET



**“M3ko Gasteizko
grebekin ia bikoiztu
egin ziren jornalak!”**

14 | TOMÁS ETXABE



**Eukaliptoaren
mehatxua
Euskal Herrian**

28 | INGURUMENA

Artikulu hauek erositako
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu

**Bilboko Mbolo Moye
Doole** elkarteari.

Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!

24€



8€

15€

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45

argia.eus/azoka

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAIN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 19 | IRATI LABAIEN
- 20 | JUNE FERNÁNDEZ
- 21 | RUBEN SÁNCHEZ
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | ENEKO GORRI

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA: DESIRÉE BELA-LOBEDEE
- 54 | BERANDUEGI



URKO APAOLAZA

28 | EUKALIPTOA

Eusko Jaurlaritzaren 1986ko Baso Inbentarioan 3.769 hektarea eukalipto zentsatu zituzten, 2018koan 18.750 hektarea, gehien-gehienak Bizkaian. Zer ekarriko du eukaliptoak? Urko Apaolaza kazetariak galderaren arrastoari jarraitu dio adituen txostenak eta hitzak jasoz.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Espazioa itxuraldatuko lukeen Starlink proiektuaren kontra erresistentzia abiatu du Normandiako herrixka ttipiak

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | TOMÁS ETXABE

“Martxoaren 3ko heriotzetatik bi egunera, eskatzen genuen guztia onartu ziguten”

Miel A. Elustondo

23 | POLITIKA | ADUR RAMIREZ DE ALDA

“Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren parte izan da Altsasukoa”

Axier Lopez

34 | EUSKARA

Euskara jakiteak motxila arintzen du, baina zeharo ez

Onintza Irureta

36 | NAZIOARTEA | JOSE MANUEL GUTIERREZ

Yaku Perezen esangura: Ezkertiar kontserbadoreentzako gogoeta

Juan Gorostidi

44 | KULTURA | MIKEL BEGOÑA

“Komikiak ahalmen hori ere badauka, hain ezaguna ez den alde iluna azaleratzekoa”

Jon Torner

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Bego Zuza

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel García, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartziandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina

31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

an(t)za
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA





Erreskateak pandemia garaian

Otsailaren 19an 102 pertsona erreskatatu zituen Aita Mari itsasontziak Maltako uretan. Gehiengoa somaliarrak, tartean 57 adin txikiko eta zortzi hilabeteko ume bat. Beraz, tripulazioko 13 kideekin batera, 115 lagun espazio txiki batean sartuta. Antigonoak dituen erreskate ontzi bakarra da Aita Mari, baina horrelako jendetza itsasontzi batean itxita edukitzea hainbat egunez, porturatzeke arazoak jarrita, pandemiaren gorrian, Europar Batasunak osasun publikoaren aurka egindako enegarren eraso da Mediterraneoan. 2020an 1.700 lagun inguru hil dira Mediterraneoan Nazio Batuen arabera. Irudian: Aita Mari barruko panorama erreskatearen ondorengo egunetan.

MOTZEAN

Miren Larrion EH Bilduko Gasteizko Udaleko bozeramaileak dimititu egin du. Lankide baten txartela erabiliz kontu bat sortu eta "diru kopuru txiki bat" sartu zuela onartu du Miren Larrionek, "noizbait behar izango banu erabiltzeko".

2022an Qatar-en egitekoa den Munduko Futbol Txapelketarako obretan 6.500 langile baino gehiago hil dira, "The Guardian" egunkariak azaleratu duenez.

Bilboko Langile Autodefentsa sareko lau kide atxilotu eta beste bi atxilotzeko saiakera egin du Espainiako Poliziak. Operazioaren atzean Limpiezas Arana Fernández Aguilar garbiketa enpresarekin abiatutako gatazka dagoela dio sareak.

Hainbat familia etxetik kaleratu ostean, XVI. mendeko Erbetegi dorretxe historikoa bota dute Donostian, AHT egiteko.

Transexual helduei beren prozesuan laguntzeko sortu da Loratuz Lotu elkarteak: ezagutzak partekatzeko, beldurrak uxatzeko, inork ez dezan bide hau bakarrik egin behar izan.



Argia.eus-en entzungai jarri dugu audioa.

Intxaurrendon sistematikoki torturatzen zutela frogatzen duen audioa

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA / LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Mikel Zabalzaren kasuaz hizketan, "eskua joan zaie", esaten dio Pedro Gómez Nieto Guardia Zibileko kapitainak Luis Alberto Perote CESIDeko koronelari. Público-k argitaratu du audioa, *Non dago Mikel?* dokumentalerako ikerketa aipatuz iturri gisa. Zabalzaren heriotzaz gain, torturaren erabilera ohikoa zela erakusten du hotzikara eragiten duen audioak.

1985eko azaroaren 26an Mikel Zabalza atxilotu zuen Espainiako Guardia Zibilak, bere lehengusuarekin eta Ion Arretxerekin batera. Abenduaren 15ean bere gorpua Bidasoa ibaian aurkitu zuten. Bitarte horretan, guardia zibilek familiari esan zioten Endarlatsan ihes egin zuela.

Non dago Mikel? dokumentalaren egile Miguel Ángel Llamas Pitu eta Amaia Merinok aurkitu zuten Público-k zabaldu duen audioa. "Zabalzaren gaia oso itsusi dago", hasten zaio esaten Perote Gómez Nietori, eta honek bere ustez gertatu dena azaltzen dio. Bere iritzian galdeketa Zabalza "eskuetatik joan zaiela" eta bertan "geratu zaiela" azaltzen dio kapitainak koronelari. "Intxaurrendon?" galdetzen dio Perotek, eta Gómez Nietok erantzun: "Bai, nire irudipena da galdeketa. Litekeena da bihotzeko geldialdi bat izatea, buruan poltsa edukitzearen ondorioz". Kapitainak Intxaurrendon "akats asko" egin dituztela dio, galdeketa egin bitartean jendea zegoela eta senideak "bertan" (pentsatzekoa da kuartelean esan nahi duela, familia bertara hurbildu baitzen Zabalzarengatik galdezka). Aipatzen du ere medikuak ohartarazi zuela Zabalza osasunez ahul zegoela aurretik ere, azken urtean hiru ebakuntza izan zituela.

Tortura ohikoa zela argi uzten du audioak. Gómez Nietok Peroteri esaten dio berrari eta "Pindado kapitainari" ere ia "geratu" zitzaiela beste atxilotu bat, kaputxa erabilita hura ere. "Kaputxa irensten al zuen?" galdetzen dio Perotek. "Ez, ez" ematen dio azalpena Intxaurrendoko kapitainak, esanez arazoa dela une jakin batetik aurrera torturatuak bere karbono monoxidoa arnasten duela, eta itotzen hasi. "Ito egiten da, esfinterrak ireki egiten zaizkio". Gakoetako bat kaputxa gardena izatean dago, Gómez Nietoren arabera: "Bizitza ikusi eta heriotzaren sentsazioa har dezan".

Zabalzaren kasuaz gain, Joxean Lasa eta Joxi Zabalaz ere mintzatu ziren eta Gómez Nietok zehazten dio ez zirela galdeketa hil, baizik eta hil egin zituztela buruan bi tiro jota. Eta lehenago zuloa eginarazi zietela.

Akitaniera



ARITZ GALARRAGA

Pasa den asteko zutabea ez nuen gustura bukatu: euskarari buruz zeozer idazten dudan bakoitzean, deseroso sentitzen naiz gero. Iruditzen baitzait euskaldunok etengabe ari garela euskarari buruz, hitz egiten, are kexuka. Aspergarria ere baitzait, egia esan. Ados, hizkuntza gutxitu, eta txikitu, eta menostu bat dela, eta suspertu, eta babestu, eta nahi duzuen egin behar dela, baina zer onik ekar lezake egun osoz negar lanturuetan aritzeak? Gonzalo Tornek dio: zerbait falta bada, jar gaitzen zerbait hori egitera, eta listo. Ezin uka euskararen aferak ezinegona sortzen didala.

Halako batean iritsi zait esku artera liburutxo bat, *Vascónico-aquitano*, Joakin Gorrotxategik sinatua, Zaragozako unibertsitateak argitaratua, zeinean gaurko euskararen iragana aztertzen den, eta, baskoien hizkuntza indigenaz gainera, aipatzen den akitaniera, hortik izenburu konposatua. Eta esaten zaigun I. eta III. mende bitartean, Pirinioez iparraldean ez ezik, hegoaldeko zenbait tokitan ere mintzaten zen euskararen forma zahar bat dela akitaniera. Kontxo. Zergatik ez gara jolasten hizkuntzari izena aldatzera: zergatik ez diogu gureari deitzen baskoniera-akitania, edo zuzenean, sinplifikatzearen, basko astunegia ere gaintetik kentzeko, akitaniera. Izenak azken batean ez dira konbentzioak baino; baina aldatzeak ekar dezake izana ere aldatzea. Pentsa ze pisu arinduko genukeen, euskara beharrean –listo, desagertu da, ez dugu gehiago sufritu behar–, hemendik aurrera hasiko bagina hitz egiten dugun hizkuntza honi deitzen akitaniera. Horrek konektatuko gintuzke kontinentearekin gainera, sortzez penintsularrak garenok ere. Berriz jarriko lirake modan Anderexo, Sesenko eta gisako izen propioak. Eta bazter utziko genuke, azkenik, urte luzeetako karga agonikoa: kolpetik izango genuke hizkuntza bat usatu, maiseatu, itzulipurdikatzekoa. Hizkuntza normal bat, alegia. ●



“HLA ZEHATZA DUTENEK ARRISKU HANDIAGOA DUTE COVID-19 LARRI PASATZEKO”

STEPAN NERSISYAN, ERRUSIAKO UNIBERTSITATEKO IKERLARIA

Errusiako Unibertsitateko ikertzaileek azaldu dutenez, genetikoki determinatuta dago zelulek COVID-19aren aurrean immunitatez erantzuteko duten gaitasuna. Zeluletan immunitatea sortzearen arduradunak diren antigenu leukozitario molekularak (HLA-I) sei dira, eta haien osaketa bakana da gizaki bakoitzean, eta aurrekoengandik jasotzen da. "Gure ikerketan frogatu dugu HLA zehatza duten norbanakoek arrisku handiagoa dutela COVID-19 larri pasatzeko. Era berean, badira genotipo 'indartsu' batzuk, eta zaila da hauek gaixotasuna larri pasatzea". **SINC (2021/02/23)**



Martxoaren 3ko memoria zaindu



JUAN MARI ARREGI

1 976ko martxoaren 3a langileek, Gasteizko herriak, eta euskal herritarrek oro har, inoiz ahaztuko ez duten eguna izan zen. Bost langile hil, beste ehunka zauritu eta ordezkari asko atxilotu zituzten. Gasteizko San Frantzisko elizako sarraski hura, bere duintasunaren alde borrokatzen ari zen langile mugimenduari Espainiako Gobernuak emandako erantzun politiko eta polizia izan zen; borroka antikapitalista, asanbleario eta solidario bati emandako erantzuna. Langileek ez ezik, milaka familiak ere eguneroko mobilizazioetan hartu zuen parte, eurei ere eragiten zien hitzarmen baten alde.

44 urte geroago, Gasteizko Udala, Arabako Aldundia eta Eusko Jaurlaritza "Martxoaren 3aren eta beste giza esku-bideen urraketa batzuen biktimen Memoriala" gidatzen saiatzen ari dira. Memoriala San Frantzisko elizan kokatuko litzateke, orduko batzar eta erabakien eguneroko epizentroa, eta polizia bost langileak hil zituen lekua. Ez dirudi bidezkoa ezta egokia ere, langile haiek greba eredugarri harekin borrokatu zuten sistema kapitalista ordezkatzeko dutenak, orain izatea Memorial horren buru.

Langileen borroka haren memoria historikoa hobekien zaindu eta bermatu dezaketenak langileak berak dira, batzar haietako protagonistak, baita grebalarren senideak eta elkertasuna erakutsi zuten haiek ere. Jesús Fernández Naves bezalako erreferente batzuk desagertu diren arren, Gasteizen badira oraindik 1976ko martxoaren 3ko benetako Memoriaren Zentroa diseinatu beharko luketen protagonistetako asko. Horrela bakarrik bermatu ahal izango da langile borroka eredugarri, antikapitalista, asanbleario eta solidario harekiko leialtasuna. ●

Kartel honengatik salatu dute Gasteizko estudio grafiko bat

AXIER LOPEZ

O sailaren 14an Instagram eta Facebook plataformetan zabalduko kartel batengatik, Gasteizko Udaleko Herri-tarren Seguratasunerako sailak salaketa jarri du Cosmic Tentacles estudio grafikoaren aurka, Udaltzaingoen aurkako irainak leporatuta.

Otsailaren 14an Gasteizko Udaltzaingoak bi persona atxilotu zituen Gasteizko Alde Zaharreko taberna batean. Atxiloteta horretan udaltzainen jarrera bortitzak eztabaida handia eragin zuen.

Umorea eta kritika politikoa uztartzen dituzte haien argitalpen guztietan. Horren erakusgarri da, Cosmic Tentacles-eko kide batek Hala Bedin astero egiten duen Desde el abismo irratsaioa.

ACAB leloa moldatuz, "All Pitufos Are Bastards" ("Pottoki guztiak sasi-kumeak dira") eta Gasteizko udaltzainen baten irudia uztartu dituzte, gaztelan idatziko ondorengo mezuarekin batera: "Udaltzaingoa, plaka eta pistoladun inozo mota hori, beti hiperaktibitateak jota dagoena, beti irrikaz erakusteko bere anaia zaharrena (garai bateko zipaioa) bezain basatia eta burugabea izan daitekeela".

Cosmic Tentacles-eko kideek prentsaren bitartez izan dute salaketaren berri sare sozialetan: "Ez gaitu ha-



rritzen, baina badirudi adierazpen askatasuna askatasunez erabiltzeak epaitegietara eraman gaitzakeela. Demokrazian bizi zitezagatik oso eskertuta gaude".

Askatasunik gabeko arteak beti aurkitzen dituela, diote, adierazteko bideak (arriskua gorabehera), baina aske izan behar duen gizarte orok ezin dituela bere artistak jazarrita, ahoa estalita edo espetxeratuta eduki. Auzitegietara eramatea erabakitzen badute, eskura dituzten "lege-tresna guztiekin" prestatuko direla azpimarratu dute, baina batez ere, orain arte eraginkorrenak izan direnekin: "Kalean mobilizatzea eta elkertasunerako dei egitea sektore artistikoari, herritarrei eta haien mugimenduei. Stop zentsura!" ●

BIZITZARAKO FUNTSEZKOAK?



M8

AITORPENA
DUINTASUNA
ERANTZUKIDETASUNA

ESPAZIOA ITXURALDATUKO LUKEEN *STARLINK* PROIEKTUAREN KONTRA ERRESISTENTZIA ABIATURIK DU NORMANDIAKO HERRIXKA TTIPIAK

Elon Musk munduko aberatsenak Marte planeta kolonizatzeaz gain, *Starlink* deitu makroproiektuarekin mundu guztian internet konexioa bideratzea du helburu. Horretarako, milaka sateliteren arteko “konstelazioa” osatzen dabil. Saint-Senier-de-Beuvron izeneko herrixkak ukan du horren berri, bertan instalatzekoak dituen antenak eta bola parabolikoak ikustearekin. Proiektu hau estakuru harturik, espazioari begira jarri eta laster agertu zaigu espazioaren okupazio bortitza dutela bidean numerikoaren esferako enpresa boteredunek.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Davidek Goliaten kontra eraman buruz burukoaren gisara dabil 350 herritar batzen dituen Normandiako Saint-Senier-de-Beuvron herrixka. Parean, Elon Musk munduko aberatsena eta buruan duen *Starlink* izeneko proiektu megalomanoa. Bere 199 bilioi dolarrekin, eta astronautikan eta espazioko bidaie-tan berezituriko SpaceX konpainia propioarekin arras egingarria du 2018az geroztik bidean duen makroproiektua. Zehazki eta laburzki azalduta, horra zer gordetzen den izen honen gibelean: bere eskura litzuzken milaka sateliteri esker, munduko xoko guztietara internet helaraztea. Ez pentsa eskuragarritasunaren eta demokrazia numerikoaren izenean dabilenik; hain zuzen, diru anitz beharko da sare honetaz baliatu ahal izateko: hilabetero, 99 dolar kostatzen ditu erabilpenak AEBetan eta gainera, erabiltzaileak 499 dolarretan erosi beharra du instalazio-kita.

Starlink-ek hamar bilioi dolarreko gastuak baldin baditu ere, irabazi handikoa izanen zaio: 2025etik aitzina, 30

bilioi dolarreko irabaztea aurreikusten du Muskek.

Espazioko sare hau eskuratu ahal izateko antena errepikagailuak behar du planetako hamaika xokotan, eta tartean, Saint-Senier-de-Beuvronen kokatu nahiko litzuzke –Frantziako Estatuari dagokionez, beste bi lekuetarako ere du telekomunikazioaren sektorea erregulatzen dabilen ARCEP egituraren partetik baimena jasorik–.

“Urrian hurbildu zitzaizkigun, lur-zati eske. Informazio anitz eskas ditugunez, proiektuaren aurka kokatzen gara, osasun-arriskuei dagokionez ez dakigulako ezer”, dio Benoit Hamard herrixka honetako auzapezak. Instalazio honek osasunaren eta ingurumenaren arloan ondorioztatuko lukeenari buruzko ikerketa independenteak exijitzen dabil-tza. Bitartean, aurkako udal-ordenantza bozkaturik du herriko kontseiluak. Badakite arras ongi ikusezin badira ere, uhinek ondorioak dituztela bizidunetan: “Elektromagnetikoaren arriskuez nahi baino gehiago dakigu, gure azien-da hazkuntzetan jada pairatzen ditugu

inguruko tentsio handiko lineenak”, dio kezkatutik laborari izandako François Dufour Normandiako hautetsiak.

18 eta 28 GHz-ko frekuentzia-tartea erabiltzeko baimena jaso zuen Frantziako ARCEPen partetik Muskek, iazko abenduan. Bi metroz goragoko bederatzi bola paraboliko eta bederatzi antena luze instalatzekoak ditu hiru hektareako Normandiako eremuan. “Herritarrek eta demokraziak jasotako indarkeria”, Dufourren hitzetan: “Munduko aberatsena izateko zeingehiagokan sarturik, eztabaida eta informazio eskubidea zangopilatzen dabilta bilioidun hauek. Sekulako bortizkeria da”.

Baina normandiarren ezetzak pisu guti du balantzean, eta berean aitzina doa Musk. SpaceX konpainiaren suziriei esker, milaz gora satelite ditu jadanik Lurretik 550 bat kilometrotara igorri-rik; eta hirurogeinaka bidaltzen dabil, 12.000 sateliteko “konstelazioa” osatzeko helburuarekin.

Jakinik, UCS Union of Concerned Scientists egituraren arabera, 2020ko abenduaren 31n 2.787 satelite zirela

**ELON MUSK**

Space-X proiektuarentzat 12.000 sateliteko "konstelazioa" osatzen dabil munduko aberatsena, eta beste 30.000 sateliterentzako baimena eskaturik du.

GETTY IMAGE

espazioan, argi gelditzen da *Starlink* egitasmoak erabat desitxuratuko lukeela espazioa. Hilabetero 180 bidaliko ditu eta hori 2025a arte –ondoko urteentzat, beste 30.000 gehiagorentzako baimena galdetua du–.

UDAKO GAU IZARDUNEN BUKAERA

Guillaume Canat kazetariaren eskutik, *Le projet Starlink d'Elon Musk menace la recherche astronomique* ("Ikerketa astronomikoa mehatxatzen du Elon Musken *Starlink* proiektuak") artikulua plazaratu zuen *Le Monde* egunkariak otsaila hastapenean. Aurreikusitako emendio ikaragarri honen parean, kazetariak argi dauka: "Proiektu hauek gauzatzen badira –baita partzialki ere– gaur egun ezagutzen dugun zeruaren bukaera izanen dugu". Zergatik? Une oro ehunka satelite pasatzen ikusiko genituzkeelako. Pluralean mintzo da, hain zuzen, numerikoaren esferako beste talde batzuek ere dutelako xede bera: *OneWeb* izeneko proiektuarekin, 5.260 satelitedun konstelazioa ere hor da; Amazonek ere 3.200 satelite bidal-

tzekoa ditu *Kuiper* proiektuarentzat; Lynk zein Facebookek ere milaka bidal-tzekoak dituzte 2021 eta 2023 urteen artean –eta noski, horiei gehitu behar zaizkie Txinako zein Errusiako talde boteretsuen ametsak–.


Argi artifizialak direla eta, hirietatik izarrak ez ditugu gehiago ikusten, eta satelite hauen gehienak ere ez zaizkigu agertuko. Landa eremuetatik ordea, zabal eta aberatsa da gau izarduna, baina, maleruski, hein batean agur erran beharko diogu musu-truk dugun ikus-kizunari. Urtaroen arabera egoera hobeagoa ala okerragoa genuke: neguan eta Europatik, gauaren hasieran eta bukaeran soilik genituzke begibistan objektu arrotz hauek –iguzkia objektu hauen argitzeko kokalekuan denean–; baina beste hiru urtaroetan, gau osoan agertuko zaizkiguke, girlanda argidun baten gisara.

Iparrizarra zein Hartz Handia konstelazioa bezain lodi ikusiko genituzke ehunka satelite, –orain arteko izarren mapa estaliz...–. Jada ikusgai ditugu, artetan, *Starlink*-i buruz ezer ez dakien

herritarren harridurarako. Ohikoak bilakatzen ari dira gauean zeruan argi arraroak ikusi izanagatik sare soziale-tan zabalduriko mezuak... biharamu-nean berean misterioa argiturik dutela, SpaceX konpainiaren igorketa izan zela dion zehaztapenarekin.

"Konstelazio artifizial horien eragina izugarria izanen litzateke astroargazkilarientzat, ikerketa astronomikoa-rentzat, eta zeruaren behaketentzat", irakurri daiteke artikuluan. Kezkak baretzeko gisan, objektuak beltzez pintatuko dituela zehazturik du Muskek –iguzkiaren argia gutxiago islatzeko gisan–. "Irtenbide tekniko horrek, begi hutsez ikusten diren objektuen kopurua murriztuko luke ziur aski, baina, berez arazoaren funtsa ez du konponduko, objektu arrotz gutxi-asko distiratsu horiek behaketak erasotuko lituzketelako modu iraunkor batean. Biziki zaila izanen da hauen erabat kentzea, eta astrofisikaren ikerketa-eremu ugari kondematuko dituzte".

Horrez gain, objektuen arteko talken arriskua ere emendatuko luke sateli-



ASTRONOMIARENTZAT KALTE HANDIAK

Objektu artifizial hauek traba handia eraginen diete ikerketa astronomikoan dabiltzanei. Irudian sateliteen presentzia nabarmena da.

teen biderkatzeak. Orain arte, eragileen arteko komunikazioari esker kudeagarria baldin bada ere, espazioaren okupazio honek istripuak biderkatzeko arrisku erreala dakar. Horren adibide, 2019ko irailean ESA Espaziorako Europar Agentziak satelite baten bidea azken momentuan aldatu behar izana, parean zetorrelako SpaceXena –azken honi abisua emana zion ESAk, baina mezua ez zuten ikusi SpaceXek–.

Espazioaren okupazio hau legez eta baimendurik bideratzen dute enpresa pribatu hauek; nonbait, bide zuzenetik dabilta. Kontua da, espazioari buruzko arautegia zaharkiturik kaustitzen dela, eta eremu zabal hau babestu nahi badugu, arauen berrikuspena ezinbestekoa dugula. Hain zuzen, urtean gehienik doza baten satelite botatzea aurreikusen zen garaioak dira araudiak, eta dagoeneko ez dute balio hazkunde esponentziala duen merkatu honen errealitatearentzat.

ESPAZIOA ARAUTZEKO PREMIA

Mundua eta espazioa erabat aldatu dira 1957an Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunak Sputnik izeneko lehen satelitea bidali zuenetik. Alta, 1960ko hamarkadako legediek pisu handia baldin badute oraindik ere espazioaren zu-

zenbidean –1963ko abenduaren 13ko NBEaren 1962. ebazpena eta 1967ko espaziorako lehen hitzarmena, besteak beste–, badirudi ordungo printzipio eta espazio-ikuskerak pisu geroz eta gutiago dutela. Berez espazio estra-atmosferikoa *res communis* definitua baldin bada –“komuna” edo “guztiona”– eta ez-jabetzaren printzipioa adosturik baldin badute ere Estatuen artean, badirudi legediaren hutsuneei esker, espazioa kolonizatze bideak dauzkatela egitura pribatuak.

Bukatu da espazioaz Estatuen artean solastatzen eta adosten zen garaia; gaur egun, egitura pribatuak ere dira joko-zelaian sarturik, espazioa okupatzeko gogo eta aukera handiekin. Hori horrela, kazetariak abisua emana du: “Premiazkoa da legediaren moldaketa, iragartzen diren kalte ugariak kontuan hartzeko gisan”. Kezka eta inpotentzia nagusi dira astronauten artean. IAU Nazioarteko Batasun Astronomikoak alarma piztu zuen 2019ko udaberrian, Muskek bidalketak hasi zituenean. “IAUk zeru ilun eta erradio-isilaren printzipioa hartzen du bere baitan, gure unibertsoaren ulermenean aurrera egiteko funtsezkotzat izateaz gain, gizateriarentzako eta gaueko faunarentzat ezinbestekoa delako. Oraindik ez dugu ulertzen zeruan sakabanatuta

dauden milaka sateliteren eragina, eta, asmo onak izan arren, baliteke satelite-konstelazio horiek mehatxu izatea”.

Ikusgarritasuna trabatzeaz gain, entzumena ere estaliko lukete milaka sateliteek: “Irrati-astronomiako maiztasunekin interferentziak saihesteko ahalegin handiak egin arren, satelite-konstelazioek igorritako irrati-seinale agregatuek oraindik behaketa astronomikoak arriskuan jar ditzakete irrati-uhinen luzeretan. Irrati-astronomiaren azken aurrerapenak posible izan badira –zulo beltz baten lehen irudia sortzea edo planeta-sistemen eraketa hobeto ulertzea–, justuki, ‘irradi-zerua’ interferentzietatik babesteko ahalegin adostuei esker izan da”, irakurri daiteke IAUren oharrean. Arrisku guzti hauetaz kontziente eta jakitun, agintari politikoei eskatzen diete komunitate astronomikoarekin “kontzertazioan” hartzea erabakiak. 1.500 bat astronomok ere dute gutun bat izenpetu berri, “espazio-ko *far west*-aren bukaera” exijituz.

Bere aldetik, SpaceXek “elkarrizketari irekia” dagoela jakinarazia die. Hala eta guztiz ere, bizkitartean, alarma gorriari bizkarra erakutsiz, sateliteen bidalkeekin segitzen dabil. Bizia, unibertsoa eta Lurra ulertzeko asmoz dabiltzanak ulertuko ote ditu soilik dirua helburu



SPACE-X

2002an sortu zuen astronautikan eta espaziorako bidaletan berezitua den *Space-X* enpresa Elon Muskek. Marteren kolonizazioa ere du helburu Muskek.

RED HUBER

duenak? Ikusiz diruaren izenean behere honetako justizia soziala eta ingurumena zangopilatzeke prest dela, errazki irudika dezakegu logika berarekin so egiten diola espazioari. Klima larrialdia dela eta, ingurumenari dagokionez erronkak ez ditugu eskas XXI. mende hasiera honetan.

XXI. MENDEKO ERRONKA BERRIAK

Alta, espazioaren okupazioa arautzearena eta kolonizazio fase berri hau oztopatzearena ere gehitu beharko diogu

zerrendari. *Les Echos* komunikabideko *2010-2019: les dix ans qui ont transformé l'espace en Far West* titularrak dion gisara, azken hamarkada honetan da espazioaren transformazio hau gertatu –gutxi gora behera, Elon Muskek Marteren kolonizatzeke helburu serioa plazaratu zuenetik (2050eko milioi bat lurtar ditu Planeta Gorrian bizitzen irudikatzen)–.

Marterena egingarri izan ala ez, behintzat espazioaren okupazioan dabil, XXI. mendeko zabor mota berri bat ondorioztatuz gainera: espazioko zabo-

rrak. Zentimetro bat baino gehiagoko 900.000 zabor ziren espazioan 2019ko urtarrilean. Askoz gehiago izanen dira gero hurbilean, eta zaborren kudeaketa honek astronomiako bat baino gehiago ditu kezkatzen.

Funtsean, ClearSpace taldearekin hitzarmena pasa zuen iaz Espaziorako Europar Agentziak. Espaziorako lehen zabor-biltzailea dugu ClearSpace. Ongi etorri XXI. mendera: ezin kudeatuz gailtzan Lurreko zaborrei espazioko zaborrak gehitzera goaz... ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
 T. 943 420 624
 info@zinkunegioptika.com
 www.zinkunegioptika.com

f i

Tomás Etxabe

GASTEIZ, 1976, MARTXOAK 3



MARTXOAREN 3KO HERIOTZETATIK BI EGUNERA, ESKATZEN GENUEN GUZTIA ONARTU ZIGUTEN



Forjas Alavesas-en doitzaille sartu zen Tomás Etxabe. Langileen iraultza zuen amets, eta xede horrexen bila abiatu zen beste zenbait kiderekin batean. 1976ko urtearen hasieraz gero, grebara jo zuten sei mila langilek Gasteizen, eta mugimendu haren gidarrietakoa izan zen Etxabe.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

[Gu galdezka hasi baino lehen esan digu Tomás Etxabek]

Ia ez naiz etxetik irtetzen. Elbarri batekin hitz egiten ari zara. Bizitza erdia daramat elbarritasun pentsioa jasotzen. Tumore bat dut buruaren atzeko aldean, bola moduko bat, hortxe katigatuta. Dirudenez, odol isuri bat izan nuen noizbait, eta horrek buruko nerbioren bati eragin zion, eta, ondorioz, ikusmena, mintzamina, oreka... erasanak ditut, edo erasanak izan nituen garai batean. Gauza batzuk errekuiperatu ditut, ez denak. Zuri begiratu, eta bi ikusten zaituztet... Beharbada, tumorea nuela jaio nintzen, baina 34 urte nituenean jabetu nintzen hartaz. 35 urterekin utzi nuen lantegia.

1949an jaioa zu, 1984an jabetu zinen

gaitzaz. Eta, handik goitik?

Handik pare bat urtera, elbarritasuna eman zidaten, eta pentsioa kobratzen ari naiz ordudanik. Medikuntza ofizialaz ez naiz gehiegi fidatzen, “medikuntza alternatiboa”-ren bidetik jo dut, medikuntza energetikoa eta beste. Zenbait ikastaro egin ditut, neure burua, eta nire gaitzaren jatorria ezagutzeko. Medikuntza energetikoan ari nintzela, gaitza diagnostikatu eta hamar urtera edo, lehenarekin moztu behar nuela esan zidaten. Erabat, moztu.

Zer da “lehenarekin moztea”?

Lehenago harreman guztiekin etetea. Berrogeialdi bat ere egin nuen Leireko monasterioan, erabat itxita, ez telebista, ez irrati, ez telefono. Hantxe. Egon. Eta lehenago harreman guztiak etetea erabaki

nuen: nire jendea, nire sindikatua, nire dena delako guztia. Eten.

1976ko greba haiek eta gero ere Forjas Alavesas fabrikari segitu zenuen lanean?!

Bai. Martxoaren 3ko greba eta gero, sei hilabete egin nituen ihesean. Baina, ondoren, bertara itzuli nintzen.

Langile buruetakoa zinen...

Esateko modu bat da, “buruetakoa”.

Esan nahi dut, beste zenbait buru edo lider, Imanol Olabarria edota hil berri den Jesús Fernández Naves, poliziak harrapatu eta Carabanchelen eduki zituztela...

Martxoaren 3koaz gero ere, haiek beren



Tomás Etxabe Arakistain

ZUMAIA, 1949



Tomás Etxabe Arakistain (Zumaia, 1949) Bitarte-zahar baserrian jaioa, mekanika ikasketak egin eta herrian bertan lan egin zuen, Gasteiza baino lehen. Forjas Alavesas lantegian hasi zen lanean, eta bertako eta Gasteizko langile mugimenduaren erreferentzia nagusietakoa izan zen. Handik urteetara gaixotu, iraganarekin eten eta jaioterrira itzuli zen andrearekin batera. Baina berrogeitaka urte igaro eta gero ere, haren izenaren oihartzuna bizirik da Gasteizko langileen artean, Imanol Olabarria, Jesús Fernández Naves eta besterekin batera.

buruak erakustea erabaki zuten. Nik, berriz, ezkutatzea. Aldi bateko bazen ere... Oraintxe ari naiz gogoratzen... Zeuk dauzkazu kulpak! Kakotx artean esanda, beti ere. Greba eta berehala, ezkutatuta nengoela, auto baten maletategian sartu eta Forjasen izan nintzen, asanblean parte hartzen, gertatuak gertatu, aurrera egin behar zela esanez. Fabrikako sarrerako zaindaria jendea kontrolatzen ari zen, gidaria ezagutu eta sartzen utzi zuen auto eta guzti, ohi bezala. Eta ni maletategian!

Barrua behar du!

Barrua ez, konbikzioa! Gogoan dut poliziak tiroka eraso zion arratsalde hartan, zauritu bat autoan sartu eta Santiago ospitalera eraman nuela. Forjaseko langilea zen. Bala zeukan barruan! Boveda zuen deitura, errioxarra. Ondo atera zen... Ikaratzekoa zen egoera, bai, eta beharbada horrexegatik esan nien lantegiko kideei barrura sartuko nintzela, ezkutuan bazen ere, eta hitz egingo nuela.

Imanol Olabarriak ARGIA honetan bertan [2018, otsailak 18] esan zigun Fernández Naves eta biak Carabancheletik irten zirenean guztiz bestelakoa zela egoera Gasteizen, eta Gasteizko lantegietan.

Langileak hil eta gero, hiletak egin ziren eta milaka pertsona bildu ziren katedral berrian. Eta zeremonia eta gero, manifestazioan eraman zituzten gorpuak, Gasteizko irteeraraino. Hantxe zeuden zain guardia zibilak, kaminoaren bi aldeetara jarrita. Harainoxe heldu ginen... Imanolek-eta horixe ezagutu zuten, irudi hori zuten. Kartzelatik irten zirenean, horrelakorik batere ez zegoen, eta, bestalde, alderdiak eta sindikatuak legezkatzen ari ziren. Langileak erakunde horietan sartzen hasita zeuden, lehen ez bezala, lehen ez baitzen alderdi ez sindikaturik. Fabriketan, berriz, batzarrek indarra galdu zuten. Aldaketa handia izan zen, baina zeharo aldatu, ez dakit, bada.

Batzarrak desegin eta erakundeak nagusitu ziren.

Fabrikatik fabrikara modu diferentean gertatu zen hori. Adibidez, Forjasen, urte askoan iraun zuen batzarrak. Sindikatuak sindikatu, Forjasen, behintzat, batzarra sakratua zen. Eta Forjaseko ordezkariok, sindikatu bateko

kide izan edo ez, batzarra errespetatzen genuen. Bazan hori nahi ez zuen jendea, ELAko zenbait, adibidez, baina inork ez zuen batzarraren kontra egin. Inor ez zen ausartzen. Ez da nire merezimendua, eta gero eta gutxiago gustatzen zait neure buruaz hitz egitea, baina nik elbarritasuna jaso nuen artean, batzarrak indar handia izan zuen Forjasen, nahiz eta ahultzen ere hasita zegoen, bestelako erreferentziak ere hor zirelako, sindikatuak eta beste, alegia. Imanolek [Olabarria] Cablenorren lan egin zuen, [Jesús Fernández] Navesek Mevosan, nik Forjasen... Nork berea bizi izan zuen, baina, esan dizut, Forjasen inon baino gehiago iraun zuen batzarrak.

Imanol Olabarria eta Naves apaiz izanek ziren... Zu, seminarioan izan zinen?

Ez, baina ia-ia! Kar, kar... Baserrian lan-eskua behar zelako, bestela, hortxe-hortxe ibiliko nintzen! Kar, kar... Herri Gaztedin ibili nintzen, hala ere. Hantxe ideologizatu ginen. Sakona genuen buru. Andres Osa, eta harekin batera, Xipri Muñagorri. Eta Izaskun izeneko bat ere bai. Hemen, Zumaian, koadrila ginen Herri Gaztedin, hamar bat lagun. Juanito Dorransoro ere kide genuen. Gero, marxista ere egin ginen. Mekanikari ikasketak egin nituen, Zumaian bateko eta besteko tailerretan jardun nuen lanean, eta 24 urte nituela Gasteiza joan nintzen. Hantxe bizi nuen ordurako arreba [Pilar] eta, lehenengo, haren etxean bizi izan nintzen. Forjasen hasi nintzen lanean.

Arreba han zenuelako joan zinen Gasteiza.

Ez, langilea zegoen tokira joan behar zelako! Herri Gaztedin marxista egin nintzen, OICn [Organizacion de Izquierda Comunista] ibili nintzen, EMKn [Euskadiko Mugimendu Komunista]... Ez dakit non nenbilen ere, baina banekien langile arko zegoen lekura joan behar nuela, iraultza egitera.

Hara, misiolari!

Misiolari! Bai jauna! Kar, kar... Bestelako misiolari modu bat! Joan nintzen, bada, Forjasera, eta, baserritar itxura ere bai nik, eta lanera! Sei hilabeteko kontratua egin zidaten, eta, gero, berritu. Hantxe geratzea nuen buruan sartuta. 24 urte nituela sartu nintzen Forjasen, eta 26 nituela izan zen gre-

ba. Garai hartan, lubakietan genbiltzan. Artean, 1974an Franco bizi zen, eta Gas-teizko lantegietako ausartenak edo kontzientzia handiena zutenak, edo ez dakit nik nola esan, mendian biltzen ginen, Olarizu aldean.

1976ko urtarrilaren 9an sartu zineten greban Forjas lantegian.

Eta grebari eutsi genion. Gero etorri ziren Mevosa, Aranzabal, Cablenor, Areitio... Eta greban atera ziren lantegietako ordezkariak, edo haietako batzuk, lanean ari ziren lubakietan. Gehienak, gizonekoak. Beharbada, Areitio lantegikoren bat, emakumezkoa. Ez naiz gogoratzen.

Urtarrilaren 9an greban sartu, eta martxoaren 3 arte, greban...

Bai, bada! Garai hartako langile gehienak immigranteak ziren, hala-moduz bizi ziren, familia bat baino gehiago ere bai etxe batean. Oso gutxi irabazten zen. Grebaren bidez, kasik bikoiztu egin ziren jornalak!... Guk, geure jardunaren eta panfletoen bitartez, ikusarazi genion jende-ari aukera genuela: gehiago irabazteko, baldintza hobetean lan egiteko, langileen ordezkariak aitortuak izateko, eskubide sindikalak lortzeko... Hurrena, gu bota gintuztenean, beste errebindikazio bat izan zuten: kaleratuak berriro lanean hartzea. "Hauek gabe nora goaz gu?", esanez bezala. Eta eskatutakoak lortu ziren, baina bost heriotzarekin batera etorri ziren lortutako eskakizunak.

Nola eutsi zenioten bi hilabeteko grebari?

Bi hilabete, Forjasen. Mevosak hilabete gehiago egin zituen, eta Aranzabalek, Cablenorrek, Areitio... Areitio emakumeak ziren denak. Eta nola eutsi? Miraria izan zen! Erresistentzia kutzak osatu



ziren, eta, bestalde, lan-batzordeak eratu ziren batzuen eta besteen beharrak asetzeko. Gainera, zenbait langile, Arabako hainbat herritara joan ziren patatak jasotzera. Gero, patata haiek langileen auzoko elizetan banatzen ziren. Lan horri esker eutsi genion grebari.

Patatak janez!

Adibidez! Kar, kar... Baina, horrez gainera, bada datu bat, inportantea. Eta ez zaio behar besteko inportantziarik eman: emakumea. Gizona azkar beldurtzen zen etxean. Berak eramaten zuen dirua, eta eramaten ez bazuen, zer? Emakumeak bestela esan zuten: "Eutsiko diogu, patatak janez bada ere! Eutsi". Eta horrelaxe izan zen. Emakumeak erresistentzia lan inportantea egin zuten. Esate baterako: emakume asko manifestazioan irteten ziren, eskuan poltsa hutsa zutelana. Lehe-

nengo aldiz Euskal Herrian hainbeste emakume bildu eta ateratzen zela kalera! Horixe da datua! Eta Euskal Herriak, eta Espainiak, jakin zuten hainbeste emakume kalean zebiltzala, poltsak hutsik. Horixe emakumearen protagonismoa, etxean eta kalean. Inportantzia handia izan zuen. Eta badakit, esaterako, grebak eta gero Zaramagan osatu zen auzo elkarteak indar handia izan zuela, greban mugitu ziren emakumeek bertan parte hartu zutelako. Nire ustetan, Martxoaren 3az hitz egitean emakumeari ez zaio eman merezi duen garrantzia.

Urtarrilaren 9tik martxora bitartean bi greba orokor deitu zenituzten.

Ez bata ez bestea atera ziren. Eta Forjas, Mevosa, Cablenor, Areitio... sei mila langile ziren greban! Greba orokorra deitu, eta ez zen atera!



Martxoaren 3an atera zen, horratik!

Baina ez dakit zergatik! Hirugarrenean, baietz delako, nonbait. Goizean, kaleko lana egin genuen, dena geldiarazteko: dena, taberna, kale... Dena itxi! Garai hartan ez genuen beldurrik ere! Ekin! Arratsalde hartan, lantegietako ordezkariok Arana-ko elizan bildu ginen, Zaramagako batzarrara prestatzeko. Horixe genuen ohitura. Handik irten eta Zaramagako elizara joan ginenean, polizia hartuta zegoen. "Ostia! Gauza onik ez diagu gaur hemen!", esan nuen. Polizia aztoratuta zegoen, edanda ere bai. Ez ziren asko, baina guztiz armatuta zeuden. Han geundela, gurekin zegoen apaiz bati esan genion poliziaburuarekin hitz egiteko, esateko baietz, aterako zirela langileak elizatik. Ez genuen konfrotaziorik nahi. Poliziaburuak antzarak ferratzera bidali zuen gure apaiz hura, Felix Placer. "¡Fuera de aquí!" esan zioten. Orduantxe esan nion neure buruari: "Tomás, hemen gauza gorria zegok!".

Pedro Martínez Ocio, Francisco Aznar Clemente, Romualdo Barroso Chaparro, José Castillo García, Bienvenido Pereda Moral hilak, ehunka zauritu. Sarraskia.

Bai, bada. Polizia, jendea elizatik atera nahian. Gas poteak ere bota zituzten barrura, eta barruan zeuden batzuek leihotako kristalak txikitu zituzten. Baita handik atera ere. Haiek salbatu ziren. Baina ate nagusitik irten zirenak, batzuk hilda, beste batzuk balaz zaurituta... Bost heriotza eta ehunka bala-zauritu. Ezina zen han! Hala ere, horrelako momentuetan ez da pentsatzen, zer edo zer egiten da. Hartu José Luis, balaz zauritu zutenetako bat, Forjasekoa, autoan sartu eta Santiago ospitalera! Odola eta beste! Eta ospitale-rik irten ginenean, Gasteiz isil-isilik, inor ez kalean... Armada kalera aterako zutela

uste genuen. Hor dira beti Burgoseko militar haren hitzak, gobernuari esanez prest zituela soldaduak Gasteiz hartu behar bazen ere. Eta ez zen, bakarrik, Gasteiz.

Gasteizko katedral berrian egin zen hiletaz oroitzapenik baduzu?

Ez nintzen han izan, ordurako ezkutatuta nengoelako. Lehenengo urteurrenean bai, hantxe izan nintzen, eta zuzenean hitz egin nuen. Testu bat irakurri nuen eta, amaieran, orduko kontsigna haietako bat bota nuen: "Indar errepresiboak desegin". Eta Elorriagan [Gasteizko kontzejua] bazkaltzen ari ginela, polizia sekretuak ikusi nituen kanpoan. Jatekoa ere eztarrian katigatu zitzaidan: "Ostia, hemen dituk!". Eta sartu bi sekreta, eta joateko haiek. 500.000 pezetako [3.000 euro] isuna jarri zidaten, eta Langraizko kartzelara. Baina kalean nintzen handik astebetara, jendeak diru hura bildu eta fiantza ordaindu zuelako. Dirua itzuli egin behar izan ziguten, eta guk, atzera jendeari eman genion, kalean behar zenerako.

Zaramagako hilketak eta gero, zer etorri zen?

Ezkutatu egin nintzen, baina ez nion utzi lantegiko ordezkariekin biltzeari. Ludio aldean-eta biltzen ginen eta hitz egiten genuen lantokiko gorabeherez. Jarraipena egin nuen. Eta sei hilabete ezkutan eman eta gero, amnistia legea edo eman zuten. Eta ez nuen lanera itzultzeko eragozpenik izan. Are gehiago, ezkutan igaro nituen sei hilabeteak ere ordaindu zizkidaten. Horrek esan nahi du artean batzarrak indar handia zuela, nahiz eta ni han ez egon. Gauzak nola diren! Gaur egun pentsaezina da hori! Hainbeste greba, hainbeste eskari, hainbeste hildako eta zauritu... eta heriotza haietatik bi egunera langileak lanera itzuli, eta eska-

tzen genuen guztia onartu zuten nagusiek. Guillermo Aranzabal-eta negoziatzeko moduko jendea zen, baina Forjas, Mevosa eta horietakoak, gogorrak ziren!

Zer sentsazio duzu orduko hartaz?

Hura ez zen posible izango hainbeste jendek parte hartu izan ez balu: pike-tetan, dirua biltzen, Arabako herrietara patata biltzera joaten... Izenek ez dute inportantziarik, baizik eta zerk egin zuen posible gu hor izatea. Akordatzen naiz Forjasen, Teodoro, Angel... eskola handirik ez zuten langileak, baina beti hantxe zeudenak, lehenengo lerroan. Etorकिनak ziren, edo etorkinen seme-alaba. Haiek nik baino balio handiagoa dute. Ni, azken finean, ideologizatuta nongoen, marxista egina... nahi dena. Haiek ez ziren marxista, baina hantxe zeuden! Ideologizatuak gu? Txakurraren bibolina! Mundua salbatu nahi genuela? Txakurraren bibolina! Egin behar genuena egin genuen, polizia gaindituta ikusi zuen bere burua, eta egoera hartan tiroka ekin zion. Itxura denez, zerbait edanda ere bazeuden, bero-bero, eta tiro eta tiro! "¡Disparad a matar!" [Akabatzera jo tiro!] zuten kontsigna.

Garai hartako estres eta tentsioek eraginik izan ote dute zure gaixotasunean?

Konbentzituta nago baietz. Konbentzituta nago tumorea jaiotzatik dakardala. Baina saltsa hartan sartu izan ez banintz, beharbada ez zen azalduko. Tumorea hor egon zen beti, baina garai hartako tentsioak tumorearen odol isuria eragin zuen. Horrelakoetan, bi aukera dituzu: edo batere kasurik egin ez, edo zeure buruari galdezka hasi. Kasurik egin ez bano, honezkero zuloan sartuta nongoen eta zu eta biok ez ginen hemen izango. ●

KURRIKULUMA dekolonizatzen

martxoak

8 EMAKUMEEN nazioarteko EGUNA

idazkaritza feminista

kolonizatu mugak suntsitu

antirrazismoa

feminismoa

stelias
www.stelias.eu



Bi punturen arteko distantzia

Dagoeneko frogatu da puntu biren arteko distantziarik laburrena leerro zuzenarena dela” –irakur zitekeen Aran Santamariaren *Hostoz hosto erantzi* erakusketako orri solte batean– “oraindik ikertzeaz dagoena bestea da, puntu biren arteko distantziarik luzeena zein den”. Matematiketan Euklidesek planteatu zituen postulatuengain inguruan hausnartzeko erabil daitezkeen paragrafo hau, azken urtebetean norbanakoon artean sortzen ari den distantziaren inguruko hausnarketa egiteko ere aproposa izan liteke. Izan ere, hainbatetan, fisikoki gertu izan ditugun kolektiboak neurgaitzak diren distantzietara izango bagenitu legez tratatu ditugu.

Pandemiagatik alarma egoera hasi aurreko hilabeteetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizimodu Independentearen Programa ezagutzeko parada izan nuen, desgaitasun fisikoa duten edota mendekotasun egoeran dauden lagunek euren bizitzan giltzarri diren gaietan erabakiak hartzeko eskubidea bermatzea helburu duen programa, alegia. Diru-laguntza hauekin, egunerokotasunean bizitza errazteaz gain, pertsona hauek bizi nahi duten leku eta moduaren inguruan erabakitzeko boterea ahalbidetu nahi da kontratazio puntualak eginez. Ekimen hau zabaltzeko eta sustatzen duen askok, jendartearen gehiengoak duen erabakitzeko aukera berdina izateko eskubidea aldarrikatu ohi du. Are gehiago, Nazio Batuen

Hainbatetan,
fisikoki gertu izan
ditugun kolektiboak
neurgaitzak diren
distantzietara izango
bagenitu legez
tratatu ditugu

Erakundeak onartutako eta giza eskubideen nazioarteko tresna gisa erabiltzen den *Pertsona desgaituen eskubideei buruzko konbentzioa*-n modu argian zehazten da norberaren autonomia eta independentziarako ezinbestekoa dela erabakiak hartzeko askatasuna izatea.

Beste hainbat autonomia erkidegotan ere Bizimodu Independentea sustatzeko ekimenak martxan izan dira azken urteotan. Interesgarria da, esaterako, 2017an argitaratutako Andaluziako programaren eragin ekonomiko eta sozialak aztertzen dituen lanaren ondorioen artean duintasuna dela hizpide, hots, erabakiak libreki hartzeak dakarren garapen pertsonala. Honekin batera, elkarriketatuak izan ziren erabiltzaileek aipatu zuten askatasun horrek euren eskubide sozial eta politikoak ere indartzen zituela, gizartean parte-hartzea bultzatuz.



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Halarik ere, ebaluazio kualitatiboez gain, analisi ekonometrikoak ere egin dira, nolabait, programak eragindako gizarte-balioa dirutan kalkulatzeko asmoz. 2014an Madrilgo Erkidegoko Gizarte Gaietako Saisetetik argitaratutako analisiak zehaztu zuenaren arabera, administrazioak programan inbertitutako 100 euroko, zerga eta gizarte segurantzari loturiko ekarpenekin administrazioari bueltan zetorkiona 92 eurotan kontabilizatu zen. Are gehiago, erabiltzailearen diru-sarrera eta gastuak kontabilizatuz gero, inbertsio kantitate berarekin, itzulkina 132 eurokoa litzatekeela zioen.

Zenbakiak zenbaki, eta egiari zor, egoera honetan daudenetatik Bizimodu Independenteari atxikitakoak gutxienekoak dira. Maiz, egoitzetan eta familiarterako zaintzapean egon ohi dira, eta erabakitzeko askatasunari dagokionean eredu hauek mugatuagoak direla aipatzen da ikerlan hauetan: alde batetik egoitzetako egunerokotasunak, oro har, jarraibide zehatzagoak dituelako (ordutegiak, sartu-irtenak, jakiak...), eta beste aldetik, familiarterako zaintzak ere baldintzatu ahal ditzakeelako norberaren hautuak. Miserikordiatik begiratu izan zaio historikoki kolektibo honi, eta oraindik ere hainbat diskurtsotan nabari da kutsu hori. Karitateak urrundu egiten gaitu eskubideen prisma, eta enpatiazko begirada zuzenaren orde, soa desbideratu ohi dugu, inoiz elkartzen ez diren bi leerro zuzen sortuz. ●

Gurasotasun baimenak



PAULA ESTÉVEZ



JUNE FERNÁNDEZ
KAETARIA

2021eko urtarriletik hasita, Espainiar Estatuan haur bat jaiotzen duenean, guraso bakoitzak hamasei asteko lan baimena du, luzera berdinekoa eta besterenezina. Haatik, Eusko Jaurlaritzak 2019ko azarotik diru laguntza baten bidez berdindu zituen baimenak. Genero berdintasunaren aldeko neurri bat bezala aurkeztu da eta albiste ona dirudi. Baina PETRA Amatasun Feministak plataformaren diskurtso kritikoak konbentzitu nauela esan behar dut.

Hasteko, esango nuke amatasun baimenak luzatzea eta besteragarriak izatea defendatzen duen talde honen bi kritikek adostasun feminista sortu beharko luketela. Alde batetik, prestazioa unibertsala izan beharko lukeela, lan kontratuaren menpe egotea ez baita neurri birbanatzailea. Hau da, estatuak 3.000 euroko soldata mantentzen dio langile pribilegiatuari, eta hutsaren hurrengoa ematen dio langabeari, lan kontraturik gabe dabilenari edota lan erreproduktiboan dabilen milaka emakumeri. Bestetik, neurriak guraso bakardun haurrak diskriminatzen dituela (Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak, ordea, bai hartu dituela kontuan).

Baimenak besterenezinak izatea neu-

rrri feminista bezala iragarri da, aiten erantzunkidetasuna bultzatuko omen duelako eta lan merkatuan genero diskriminazioa konponduko duelako. PETRAk, ordea, bi premisa horiei erantzun die. Batetik, guraso baimenak eskasak diren bitartean, ama askok eta askok jarraituko dugu eszedentziak eta lanaldi murrizketak hartzen, eta enplegatzaileek hori badakite. Bestetik, baimenak hartzea derri gorrezkoa ez denez, horrek paradoxa bat dakar: zaintzan inplikatzeko asmorik ez duten gizonek uko egin diezaioke, eta zaintzarekiko konpromiso handia duten aitek, ordea, hamasei asteko mugarekin egingo dute topo. Horrez gain, Espainiar Estatuko amatasun baimenak Europako laburren zirelarik, aitena luzatzearen apustua feminista ez dela argudiatzen du PETRAk: zaintzeko borondaterik agertu ez duten gizonei (hor ditugu eszedentzia portzentai anekdotikoak) diru publikoa bideratzeak haien pribilegioak gotortzea dakarrela.

Dena den, ni ama lesbiana naizen aldetik, gaineratu nahi dut gogaitzen nauela bikote heterosexualetan erantzunkidetasuna behartzeko neurri bat familia ez heteronormatiboetara ere inposatzea. Generoa ez da arrakala bakarra: biko-

tekide batek soldata duina duenean eta bestea langabe edo prekario dagoenean, transferitzeko aukera estrategikoa da.

Beste puntu gatazkatsu bat da PETRAk haurdunaldia, erditzea, puerperioa eta edoskitzeari babes emango dioten politika publikoak aldarrikatzen dituela, eta feminista askori diskurtso hori eszentzialista eta biologizista iruditzen zaio. Nik uste dut gehienontzat hamasei aste ez direla nahikoa osatze fisiko, psikologiko eta emozionala bermatzeko. Eta, gainera, luzera hori osasun publikoan biziki gomendatzen den edoskitze ereduarekin (bularra eskaeraren arabera ematea) kontraesankorra dela. Berrero ere, eszedentzia da askorentzat irtenbidea eta hautu horretan klaseak baldintzatzen du.

Ez pentsa, bollera kuirra izanda araroa eta deserosoa egiten zait diferentziaren feminismoarekin lerratuta izana. Argi dago baimenak luzatzea eta aita/ama baimenen logika heterosexistarekin apurtu izana aurrera pausoa dela. Ba jarrai dezagun aurrera egiten. Polarizazioa gaintuz, adostasunak identifikatuz eta amatasun feminista ulertzeko, sentitzeko eta gorpuzteko bide desberdinak onartuz. ●



**RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA
IRAKASLEA**

“*Tout le monde déteste la police*”

Hori dio Errekaleorren dagoen horma-irudi batek, niri gozamen kili-mak eragiten dizkit, eta nago, ezker abertzalearen kide eta boto emaile gehienei ere eragiten diela halako irribarre bat. Zergatik esan zuen orduan Arnaldo Otegi badagoela Ertzaintzaren barruan EH Bilduri boza ematen dion jendea eta ezker abertzaleko jendea sartzen ari dela? Zergatik dio berreskuratu behar dela Ertzaintza?

Ba, noizbait EH Bilduko lehendakari bat izango bada Ajuria Enean, harremanak “normalizatu” behar dituztelako Confebask, Vocento, Europar Batasuna, AEB eta, noski, Ertzaintzarekin. *Realpolitik*. Diplomazia. Oinak lurrean.

Egia esateko, ezkertiar askori helduen mundua handiegi egiten zaigu, kastroiegi, errealistegi, kapitalistegi, nazkagarriegi. Bai, ume, erraza da anti-dena izatea, baina gero lanera joan behar da, mailegu bat eskatu, furgoneta bat erosi...

Gogoan dut Askapenako kideoi Ezker Abertzaleak lehen hauteskundeak irabazi zituen Obamari bidalitako zorion mezuak eragin zigun mina eta haserrea. Zertarako? Pentsatzen genuen, zer inporta dio Obamari? Ardi beltzak beltza izaten jarraituko badu bihar ere?

Hori bai: beste ardi zuri guztiak ardi beltzaren zurixkatze ahaleginari barre. Izan ere, noraino zuritu behar du beltzak zuriek onartu dezaten.

Bestalde, estatu bat aldarrikatzen duenak polizia, armada, espetxeak nola kudeatu pentsatu behar du, noski. Eta daudenetik abiatu beharko du, iraultza (armatu?)-rik ezean. Ez dira tokian-tokian polizia, armada, espetxe guztiak berdin izan, egia esateko, han dago Kuba, Hugo Chávez zena, zapatistak, kurduak, palestinar brigada ezkertiarak... eta nahi beste luza liteke zerrrenda, segida logiko batean ETAn bukatzeraino.

Lehen ezker abertzaleko jende bat sartzen zen ETAn, erakunde sozialista iraultzaile armatuan. Orain beste Ezker Abertzaleko jende bat sartzen ari omen da Ertzaintzan, erakunde polizial autonomista kapitalaren beso armatuan.

CUPEko Laia Estradak berriki esan du Prinsipateko eredu poliziala aldatu beharra dagoela, militarizatua dagoelako, beren taser pistola eta foam balak, beren torturak eta gehiegikeriak, beren mozal legearen erabilera, beren arrazakeria, beren amarru polizialak, beren independentisten kontrako oldarrak ere. Emaizkiozu gizaki bati pistola eta borra, esaiozu legearen defendatzailea dela, emaiouzu inpunitate marko bat, hauts zuri pixka bat. Iijjili!

Nire adintxoan oraindik ez nago presaturik debate honetarako, *you may say I'm a dreamer*, baina poliziarik, armadarik eta espetxerik gabeko herri bat, mundu bat nahi nuke. ●

Separatistak



**ITXARO BORDA
IDAZLEA**

Frantses Gobernuak tematu da, parlamentuaren baliabideak erabiliz, separatismoa deitzen duen klase baztertu eta apaletsien kontrako legea finkatzen. Momentuan separatistak banlieux delakoetako islamista salafistak dira (ala arabiarak, musulmanak direlako aitzakian?) baina pentsatzekoa da etorkizunean, Errepublikaren Printzipioen aurka altxatzen den oro izan litekeela, ekologistak adibidez, ezkerreko militante politikoak, raperoak, zinegileak, sistema neoliberalarekiko edozein ahots kritikoa.

1970eko hamarkadan iparraldera errefuxiatzera zetozen ETA kideak eta

hauen inguruko abertzaleak separatistak izendatzen zituzten hemengo eskuineko politikariek, halako gorroto aire batekin. Gorriak ere hala ziren, separatistak. Funtsean, betierekoa dela sinesten duen boterearen parean bermatzen diren guztiak zaku berean sartzeko eta gartzigatzeko baliatu da hitz hori, menderen mendeetan. Macron eta Darmanin, halatan, kiratsa darien putzuetako urak nahasten dabilta, bake sozial bortitz lehian: zer egingo dute orain arte muturretakoekin mututu herriarrek, kraxturuak edo bridak utziko dituztenean? ●

Bigarren hanka



ENEKO GORRI GANTIER
EUSKARA TEKNIKARIA

Azken hilabeteetako giroak distantzia hartzera eta gure buruak galdekatzera garamatza. Ariketa sana, funtsean. Azken 50 urteetan, euskararen biziberritze prozesuak bide egin du Euskal Herrian. Lapurdi, Baxe Nafarro eta Xiberuan mende laurden batez euskal hiztun proportzioa etengabe apalduz joan da. Eta ez dut 5 urtero egiten den inkesta larriki spoilatuko, azken urteetako joera demografikoek 2021eko argazki soziolinguistikoa okertuko dutela erratean. Aitzindarien belaunaldiak sortu behar izan zituen duela 5 hamarkada, odol hustea gelditzeko tresnak. Familiak ez duela gehiago segurtatzen euskararen transmisioa? Ikastolak sortuko dira. Sakrifikatutako helduen belaunaldiak euskara ez duela etxean jaso? Gau eskolak hedatuko dira. Informazioa gure hizkuntzan ez dela existitzen? Euskal irrati, telebista parte hartzaile eta kazetak sortuko dira.

30-50 urte inguru dituzte Seaska, irrati, AEK, Uda Leku eta abarrek. Pittaka-pittaka, aitzindarien belaunaldiak oinordekoen belaunaldiari transmititu dizkio tresna hauen kudeaketa ardurak.

Ez gaitezen mugatu aitzinekoek sortu dutena kudeatzera. Tokian tokiko euskalgintza ameslari, libre, horizontal, kritiko eta kapazitatua jalgiaziko duen mugimendua sor dezagun

Deseuskalduntze masiboaren aitzinean, euskararen transmisioaren apustu azkarra egin dugu. Tresna hauek garatuz, masifikatuz eta hedatuz joan dira. Eta behar berriei erantzuteko dirua biltzeko bide berriak jorratu behar izan ditugu. Borroka politikak eramanak izan dira, eta batailak irabazten ditugu ere.

Baina nago ea, erreproduzitzeko orde, ez ote den fronte berri bat irekitzeko garaia. Euskararen aldeko borroka berri eta osagarri bat. Orain arte egin

den guziari segipena, indarra eta koherentzia emango diona. Ez gaitezen mugatu aitzinekoek sortu dutena kudeatzera. Tokian tokiko euskalgintza ameslari, libre, horizontal, kritiko eta kapazitatua jalgiaziko duen mugimendua sor dezagun. “Transmisioa – Garapena – Makroa – Bateratzea – Kontsentsu sozio-politiko” zutabeari, pareko simetria emango liokeen “Erabilera – Trinkotzea – Mikroa – Boteretzea – Urratzailea”.

Ipar Euskal Herrian, euskara elkarte gutti dago. Edo hobeki erran, gordeak dira ikastoletako euskaraz bizi batzorde batzuetan, euskaltegi baten kafetegian, Euskaraldiaren antolaketa batzordetxo batean edo herriko kultur elkarte baten baitan. Behar bada, abia daiteke lehen saretze bat, bakoitzak zer egiten duen jakiteko. Eta ondotik Euskal Herri mailako ikuspegia landu, egingarria litzatekeen katalogo bat osatzeko. Eta aitzinatu arau, ikusi norat eramango gaituen bide horrek. Ez da garai errexena eta etorkizuna beltz dator. Baina aitzinagokoek ezinezkoa zirudiena egitea lortu badute, zergatik ez genuke guk zailena dena gaindituko? ●

**Astigarraga
berdintasunerantz !**



Astigarragako Udala



Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren parte izan da Altsasukoa”

 AXIER LOPEZ  DANI BLANCO

Duela lau urte “batzuek” erabaki zuten lehen lerro politiko eta mediatikora eramatea, azken hamarkadetan Euskal Herriko leku ugari gertatu izan diren liskar horietako bat. Zazpi gazte eta herri oso bat deabru bilakatuta. Zurrunbiloaren erdian harrapatu zuen gaztetako bat da Adur Ramirez de Alda da,

21 urterekin espetxeratu zuten. Jukutriaz, amarruaz, espetxeaz, elkartasunaz eta garaipenaz hitz egin dugu berarekin. Galder Barbadok eta Aitor Zelaiak lau urteko espetxe zigorra jaso eta bi astera. Pablo Hasélen espetxeratzearen biharamunean. Espainiako Guardia Zibilak *Egunkaria* itxiarazi zuela 18. betetzear zirela. Bertsio ofizialak ez sinesteko gogorarazi digun herrian: Altsasun.



Unibertsitateko bi karrera amaitzen ari zara.

Batetik, Magisteritzako azken urtea dut. Presentziala denez, espetxean ezin izan bainuen amaitu. Eta bestetik, espetxean Zuzenbidea ikasten hasi nintzen eta orain azken urtea baino ez zait falta.

Ez esan, zigor bidetik jo nahi duzula?

Bai, penaletik [barreak]. Hau guztia pasa aurretik gustatzen zitzaidan. Oso interesgarria zait.

Epaile izan nahi duzula esaten badidazu...

Ezta pentsatu ere! Abokatu izatea gustatuko litzaidake, baina praktikak egin ostean esango dizut ea iritzia mantentzen dudan.

Zer egoeratan zaudete orain?

Bost kide hirugarren graduari gaude, gaueko 12etan etxean egon behar dugu, kontrol telematiko jarri digutelako. Julien [Goikoetxea] eta Jonan [Cob] bigarren graduari dira. Astelehenerik ostiralera goizean Zaballako kartzelatik atera eta gauean berriz barrura joan behar izaten dute. Asteburuak giltzapean. Sei hilean behin egiten diete baldintzen errebisioa. Berriki izan dute eta, uste genuenaren kontra, ukatu egin diete gradu aldaketa.

Zure izenean mintzo zara, ezta?

Bai.

Aske sentitzen al zara gertatutakoaz hitz egiteko?

Bai, baina naizen bezalakoa naizelako. Hirugarren graduari egonda beti duzu begi bat gainean.

2016ko urriaren 15a zer da zuretzat?

Buf! Bizitza aldaketaren lehen eguna. Beti eramango dugu gurekin, alde negatibo zein positiboa. Gu, familia eta Altsasu bera aldatu gaitu.

Baina, muntaiarekin lotutako guztia kenduta, egun normala izan zen. Feria eguneko ostiral arrunta. Pilota partida, afaria lagunekin...

Ospa mugimenduak aipatu zuen iskanbilaren pizgarri guardia zibilen mehatxuak izan zirela: "Hilko zaitut", "Begitartean tiro bat sartuko dizut".

Tabernan borroka bat izan zen eta kito, ez dugu morboa elikatu nahi. Halere,

mozkor arteko iskanbilan baino, sorburua aurretik ikusten dut. Guardia zibilen txostenetan benetan pisua zuena ez zen gau hartan gertatutakoa. Haiek Alde Hemendik mugimendua zuten begi tartean. Ospa mugimendua, sektore zehatz batean herrian antolatuta zegoen jendea, eta gazteria orohar, txosten horietan jende asko agertzen zelako. Hori da hasieratik zigortu nahi zutena.

Guardia Zibileko tenientearen bikotearen lagunak epaiketan azaldu zuen gau hartan ez zuela erasorik ikusi, txupito edalontzi batzuk jaurti zirela bakarrik.

Bai, eta lesioek ere ez dute bat egiten haien ipuinarekin. Epaiketan kontraesan asko izan zuten. Ez du funtsik. Horregatik jendeak ez du sinetsi eta gailendu da gure bertsioa. Jendeak argi



ikusi zuen ziotena ez dela egia eta horrek azaltzen du ondoren jaso dugun elkartasun zabala.

Epaiketan adierazi zenuen Koxkan ez zinela izan. Orduan, zergatik zure kontra jo? Zergatik zuek?

Argi daukat atxilotu nindutela aurretik ezagutzen nindutelako. Guardia Zibilak Sakanako gazte askoren argazkiak zeuzkan, tartean ondoren inputatuta izan ginenonak. Norbaitek esan zien “*señalada este*” (“señalada ezazue hau”).

Terrorismoa egotzita, 375 urteko kartzela zigorra eskatu zizuen fiskalak.

Bai, lesio terroristak eta gorroto delitua. Aldarrikapen politiko bat biolentziaren erabilerarekin lotu zuten eta hala, Guardia Zibila Euskal Herrian egotea beharrezkoa dela aldarrikatzeko baliatu zuten.

Maila pertsonalean, ETaren amaieraren garaian, 2011n nik 16 urte nituen. Beraz, ETarekiko lotura organikoaz hitz egiten zutenean, pentsa zertaz ari ziren.

Zigor eredugarri gisa izendatu duzue. Zeren eta zeinetzat eredugarri?

Guardia Zibila ukiezina dela argi uzteko. Bera ezbaian jarriz gero, areago sektore politiko eta herri zehatz batekoa bazara, mezua argia da: ondorioak katastrofikoak izango dira.

Amarrua izan dela salatu duzue, baita gizartearen zati handi batek ere. Baina zeinen montajea?

Estatuaren oinarri diren zati batzuk dira sortzaileak. Guardia Zibilaren elementu batzuk, terrorismoaren biktimen kolektibo batzuk, indar politiko batzuk –baita Nafarroakoak ere bai, aukera ikusi zutelako orduko Nafarroako Gobernuaren aurka egiteko– eta epailetza bera, salbuespenezko doktrinak indarrean mantentzen dituen. Ahaztu gabe, noski, hedabide batzuek egiten dutena. Jukutriaren igorle nagusiak izan dira.

Altsasu kriminalizatzeko nahia aipatu izan duzue.

Zalantzarik gabe. Estatuaren estrategiaren parte bat izan da Altsasu deabruaren pare aurkeztea. Garaipen nagusia izan da Altsasu izatea gu babestu gaituena, herria, eta ez bakarrik gure gertukoena. Lehen unetik Altsasuk ez zuen sinetsi saltzen ari zirena. Elkartasuna

oso orokorra zela ikustean, Espainiako Estatuak gure kontra egiteaz gain, Altsasu herriari berari zuzendu zion eraso, babes zabal horren atzean herri “erradikal eta biolentia” zegoela esanez. Altsasuren karikatura egin nahi izan dute. Baina gaizki ateratu zaie.

Epaiketa Iruñean egin izan balitz eta ez Madrilen, zigorra askoz txikiagoa zatekeen?

Auskalo, agian ez.

Bestela esanda, zigorra behar al du gau hartan gertatutakoak?

Kasu honek hartu zuen dimentsio mediatiko eta politikoa izan ez balu, taberna batean izandako borroka epaitua izan behar da? Lesio batzuk tartean izanik, normalean bai. Baina, edonola ere, zigorra ez zen inolaz ere izango ezarri digutenaren tamainakoa. Areago, froga sendorik izan gabe posible izango zen denak libre geratzea. Baina gurekin hori ez da inoiz aukera bat izan.



Guardia Zibila sufrimenduarekin lotzen dut. Herria jazartzen duen erakundea da”

Nolakoak izan dira espetxean bizi izandako 1.325 egunak?

Oso gogorrak. Hasieran Jarraipen Berezikiko Presoen Fitxategian (FIES, gaztelaniazko sigletan) izan nintzen eta urte eta erdian hamalau bat aldiz aldatu ninduten moduluz. Hori astakeria da. Jakina, espetxetik espetxera aldeak handiak dira. Zaballan beste kide guztiekin batera egoteak buruan epe motzean ateratzeko asmoarekin, ez du zerikusirik zigorra jarri ziguten garaiarekin, Madrilgo espetxean bakarrik nengoenean.

Zer bizimodu aurkitu duzu ziega artean?

Desesperazioa da hitza. Eta horren ondorioz, droga menpekotasuna, biolentzia, beste kideak salatzea... Amorrua eta ezinegona eragiten ditu espetxeak. Pobrezia ere badago. Kristorena. Denek

nahi dute hortik atera. Batzuek espetxearen arauak bere egiten dituzte, murriketak lortu eta lehenago ateratzeko, eta beste batzuk, zigor oso handiak dituztenak bereziki, desesperatuta daude. Eta berdin zaie dena. Eta dena da dena.

Irakurri dizut zuk beste bat gehiago sentitu zarela, Altsasun bertan militantzia politikoagatik edo beste montaje batzuegatik kartzelan izan diren artean.

Gu ez gara EPPK-ren parte izan, ez gaituztelako gure militantziagatik epaitu. Gatazka politikoaren ondorioekin lotutako preso batzuk izan gara, borroka armatua indarrean zen garaitik kanpo. Gure kasuan militanteak ginenok eta ez zirenak bazeuden ere, ez da gauza isolatua izan, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren parte izan da.

Altsasu izan den moduan izan zitekeen Oñati?

Bai, “Alde Hemendik” aldarrikapena lantzen duen herrietako bat delako. Halere, nik argi dut Nafarroan izateak bazuela pisua, orduan Nafarroako Gobernuaren – Geroa Bai, Euskal Herria Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerraren arteko akordioak sustatutakoa– aurka egiteko. Horregatik, Oñatin baino, adibidez, Etxarrin gertatzeko aukera gehiago zegoela esango nuke.

Guardia Zibilaren kuartelak zer ekarri dio Altsasuri?

Guardia Zibila sufrimenduarekin lotzen dut beti. Herria jazartzen duen erakundea da. Oso txikitatik ezagutu dugu Guardia Zibila jendea jipoitzen, atxilotzen, kolpatzen. Herriari eginda-ko ekarpena hori da. Gaur egun ere bai.

Kuartelean bizi diren pertsonekin harremanik izan duzu?

Horko inor ez dut ezagutzen. Eta ez dut uste espazio bertsuak konpartitu ditugunik.

Guardia Zibila eta Sakanaren arteko “harremana” ez da gozoa. Aspalditik.

Sakana beti izan da oso aktiboa eta bizia gai askotan. Horrek beti izan du erreakzioa boteredunen aldetik. Eskualdean bi kuartel ditugu, Irurtzunen eta Altsasun. Guardia Zibilaren presentzia itogarria da, eta pandemia egoera honetan, zer esanik ez. Baina tira, estatutu poliziala eta pandemia, eskutik doaz leku gutzietan.

Espainiako segurtasun indarrek Euskal Herritik alde egin behar al dute?

Bai. Argi. Herri izaera ukatzeko daude Euskal Herrian.

“Dena da ETA” teoriaren beste ondorio bat al zara?

Bai. Nahiz eta ez zaidan asko gustatzen “Dena da ETA” definizioa, Garzonek eta konpainiak asmatutako lotura hori. Agian egokiagoa zatekeen “Dena da Nazio Askapenerako Mugimendua”.

Bada, Garzonek berak zuen alde hitz egin zuen, gehiegikeria zela esanez.

Boterean direnean interes jakin batzuen mesedetan aritzen dira, irmo, baina hara non, ardura uztean, diskurtsoa aldatzen du epaile, politikari eta ministro askok. Doktrina makur horren erantzule nagusia izan zen Garzon, baina, tira, positiboa da horrelakoak esatea orain. Kontrae-sankorra bezainbeste.

Zuen kasuaren berezitasunetako bat izan da Euskal Herrian ezezik, Espainiako Estatuan ere babes handia lortu izana.

Ebrotik beherako apartheid informati- boak eragin handia izan du. Harresi eraginkorra izan da, jende askori ez zaio hemengo informazioa iritsi. Garai haue- tan, teknologia berriak tarteko, muga hori gainditu eta elkartasun sareak sor- tzeko aukera gehiago dago. Estatuak bitarteko komunikatibo itzelak izaten jarraitzen du, nagusiki telebista, baina kasu honetan kontrabotere informati- boak funtzionatu egin du. Estatuaren in- teresen menpeko hedabideek egin zuten bonbardaketa bera ere baliagarria izan zen tortillari buelta emateko.

Elkartasun ekimen guztiak zerrendatzea ezinezkoa da. Asko eta askotarikoak izan dira. Nola jaso dituzu?

Ia dena espetxetik bizi izan dut. Altsasun 60.000 lagun bildu zirenetik, ondorengo guztia. Guk flipatu egiten genuen. Flipa- tu koloretan. Batzuetan negarrez, babe- sa hainbestekoa zela ikustean.

Kataluniatik jasotakoak bereziki hunkitu zaitu.

Ikaragarria izan da handik jaso ditugun mezuak, eskutitzak. Gure artean esaten genuen, “Baina zer ostia gertatzen da Katalunian?”. Bo, haiei ere errepresio gar- rai gogorra egokitu zaie, gertu-gertutik

ikusi dute zein den estatuaren aurpegia. Katalanek sarri aipatu didate: “Bai, ba- genekien Euskal Herrian presoak, atxi- loketak, errepresioa zeudela, baina... ez genion tamaina hartzen, ezta oso-osorik sinetsi ere”. Eta begira, orain. Haiei ere begiak irekiarazi dizkiete.

“Jaikitzen naizenetik berriro ohean sartzen naizen arte, denbora guztian daukat gaia buruan”. Hala zioen zure ama Bel Pozuetak.

Bai. Demasa, demasa! Esajerazioa irudi lezake, baina hala izan da. Barrutik ere bizi izan dut. 90 minutuko bisean bise- tan, gaiaren inguruan aritzen ginen berbe- tan eta azken minututxoetan baratzeaz, etxeaz, gutaz... Hala zen egunerokotasu- na. Eta, egia esan, denak topera zeudela ikusteak asko lagundu nau. Lau urtez oso maila zorrotzeko militantzia izan da. Izu- garria. Familiek dena eman dute seme- a- labengatik eta gizarteagatik, hau dena ez baita kontu pertsonala izan. Horrela bizi izan dute eta oraindik ere hala daude, ko- rapilo asko askatu gabe dagoelako.

Gazte mugimenduak gazteei ahotsa ematea aldarrikatzen du. Zuen kasuan aldiz...

Zero! [barreak].

Eroso sentitu zarete?

Bai eta ez. Baina begira, gurasoak bildu eta antolatzearen ideia gugandik atera zen. Gu atxilotu baino astebete lehena- go, hainbat asanblada egin genuen her- rrian, eta gurasoak lehen lerrora ekartzea interesgarria egin zitzaigun. Halakoetan ohikoa ez den aldea erakusteko balio le- zakeelakoan. Gure planteamendua zen gurasoak izatea gure ahots eta belarriak.

Noski, gero ez da horrela izan erabat, haiek ere dituztelako haien iritzia eta dis- kurto propioa. Eta hala izan behar du.

Gurasoek egindako lana *brutala* izan da. Ahaztu gabe, Altsasuren gaitasuna eta Altsasukoak Aske plataformak izan duen mobilizaziorako ahalmen ikaraga- rria. Baita beste eragile batzuen lana ere, Ernaik Nafarroan kristoren dinamikak egin zituen.

Guk, kanpoan izan bagina, nola joka- tuko genukeen? Auskalo. Edonola ere, gu bigarren maila batean geratzea gure estratejiaren parte izan da.



Ospa mugimendua, herriko sektore zehatz batean antolatutako jendea eta, orohar, gazteria dira hasieratik zigortu nahi zituztenak”

1000 egun, mila mezu, mila muxu. Zaurietan, muxu. Injustiziarri aurre egiteko, emozioak ere lehen lerrora. Gure kasuaren injustiziak jende asko hunkitu zuenez, askori min hori kanpo- ratu beharra ateratzen zitzaion. Batzuek esan digute, bai, alde emozionala gailen- du zaiola alde politikoari. Baina nire us- tez, ildoak gehien bat emozioei errefe- rentzia egiten bazien ere, karga politiko





handiko gaiak ukitzen ziren, inplizituki izanik ere. Jendearen ikuspegia aldatzeko oso baliagarriak izan dira, eta orain perspektibaz ikusita, politikoki oso indartsua izan dela iruditzen zait.

Urte luzez oso gogorak izatera ohituta egon gara, dena konfrontazio terminoetara eramanez nahian.

Elkartasun baga handi horrek lagundu duela, adibidez, zu orain kalean egoteko adibidez, baina zertan uste duzu izan dela eraginkorra?

Baliagarria izan da jendeak argi ikus dezan Guardia Zibilaren zeregina zein den hemen, baita Auzitegi Nazionalaren existentzia bera ere ezbaian jartzeko. Gazteriari begira ere oso interesgarria izan da, Estatuak gu zapaltzen jarraitzen gaituela gordin erakusteko.

Bost urte eta gero, jokaldia ondo aterata al zaio Espainiako Estatuari?

Nik uste ezetz. Lortu dute min handia egitea, gugan, senideengan, herrian eta gurekin enpatia izan dutenengan. Baina interes politikoei begira, neurritik irten ziren eta gaizki aterata zaie. Herriaren garapena izan da. Horrela ikusten dugu auzipetuok.

Kontakizunaren borroka gero eta azkarrago gertatzen da. Kalean zinela ikusi duzu zure buruari buruzko telesaila telebistan. Nork eta 'Altsasukoak Aske' kamiseta eramateagatik pertsona bat zentsuratu zuen kateak berak, ETBk, egina.

[Barreak]. Bai, pasada izan da! Lagunekin ikusi nuen. Surrealista. Argi dago fikziozko elementu asko sartu zituztela, gauza batzuekin ez nintzen oso identifikatuta sentitu, baina beste batzuekin bai. Gidoian errespetatu zuten epaiketari gertatutakoa, adibidez. Kritika hor utziko dugu, nahiago gehiago ez hitz egin, ur handitan ez sartzeko [barreak].

Elkartasuna adierazi duten horiei guztiei, zer esan?

Gure artean askotan aipatu dugu: Nola demontre eskertu jendetza hori guztia? Hainbeste eta hainbeste izanik, ezinezkoa zaigu. Hasteko eta behin, nire iritziz, ekarpen ona da gu orain isilik ez geratzea, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Elkarriaz hainbeste, hor kokatzen dut.

Zer irakaspenarekin geratzen zara?

Hasteko, izan, izango dira horrelako

montaje gehiago. Espainiako Estatuak ez denez demokratikoa, disidentzia politikoa egongo da. Eta horri erantzuteko, errepresioa baliatuko dute, historiak hala erakutsita.



Guk flipatu egiten genuen. Flipatu koloretan. Batzuetan negarrez, babesa hainbestekoa zela ikustean

Gure kasuan gakoa izan da puntu komunak bilatzea askotariko jendearen artean. Dinamika ez ixten asmatu dugu, ahalik eta gehien zabaltzen, elkartasun sarerik handienak osatzeko. Estatuak akusatutakoak isolatuta egotea nahi du. Haiek gu gure baitara biltzea nahi badute, orduan guk aliantzak egin behar ditugu, gure borrokaren zilegitasuna zabaltzeko. Elkartasuna eta batasuna. ●

EUKALIPTOA

Basamortu izateko arriskua

Eukalipto kopurua ia boskoiztu egin da azken urteetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Aranzadiko eta EHUko adituek egindako ikerketaren arabera, zuhaitz horren hedapenak kalte egingo lioke Euskal Herrian ingurumenari, eta intsinis pinuaren tokia hartzen badu, epe motzean mendi askotako paisaia eta natura ez dira lehengo berak izango. Urumeara jo dugu, eukaliptoak mehatxaturiko bailara ezkutuen bila, mortu bilakatu baino lehen.

 URKO APAOLAZA AVILA

Haltzadi eta harizti mistoen ar-
tetik ur-jauzi txikien doinuak
arunt garbi entzun ditzakegu.
Kartola erreka ondoan gaude,
Urumean barrena, Hernaniko
eta Ereñotzu auzoko herriguneak igara-
ta, Adarramendiren sortaldeko aurpegi
ezezagunak kukutzen duen bailara umel
bezain bihurrian. Gorago, parean dugun
pistari segika, ikusmira zeharo aldatzen
da ordea: pinudi zabalak zirena, matarra-
saz soildutako eremu hustuak dira orain,
egur zaleen errukiz zutunik geratutako
gorosti bakan batzuk salbu.



Haritzalde Naturzaleen Elkartek joan den urteko apirilean salatu zuen inguruotako baso triskantza 70 kirol-estadio adinakoa zela. Babestutako animalia eta landare espezieei ere zuzenean eragin die. Lur horien jabea den elkargoak, mozketa-rako baimena lortzeko, lursailak bere lau kideen artean partitu zituen lehenik, ekologisten esanetan. Zapelatzaren oihuak erakarrita begirada jaso dugunean, jabetu gara zenbait mazelatari jadanik hasi direla eukaliptoak landatzen ilaratan.

Hernanin iaz 70 hektarea eukalipto landatu ziren, ordura arteko guztiaren

erdia urte bakarrean, eta jadanik 220 hektarea dira. Oraindik ez da udalerriko baso azaleraren zati txiki bat baizik, baina beste landaketa batzuk ordezkatzeko ari den neurrian –batez ere pinudiak–, baliteke bailaran landaketek hartzen duten 1.700 hektarearen zati handi bat eukaliptoak izatea hemendik gutxira. Horrek ingurumenari eragingo liokeen kalteaz ohartarazteko hainbat hitzaldi eman dituzte Iñaki Sanz-Azkue eta Arturo Elosegi biologoek Hernanin eta Ereñotzun. Elosegi EHUKo katedraduna da Landareen Biologia eta Ekologia saillean, eta Eusko Legebiltzarraren eskariz eukaliptoaren inguruko ikerketa batean hartu du parte, EHUKo eta Aranzadiko hainbat herpetologo, ornitologo eta biologoekin batera. “Argitaratuta zegoena berrikusi dugu eta harrigarria da emaitzak zein koherenteak diren: denetarik espero genuen, baina ikertzaile guztiak sistematikoki diote eukaliptoak ingurumenarako kaltegarria dela”, azaldu digu.

INTSINISAK UTZITAKO TOKIA BETETZERA

Eukaliptoak estalitako azalera ia bost aldiz biderkatu da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan azken hiru hamarkadatan –Nafarroa iparraldean sail bakarren bat badago, Ipar Euskal Herrian aldez, batere ez–. Gehiena *Eucalyptus globulus* espeziekoa da (%60) baina bada *Eucalyptus nitens* franko ere (%37), izotza hobe jasaten duena. Bizkaiko kostaldetik ari da zabaltzen eukaliptoak eta dagoeneko EAeko lurraldearen %3,2 estaltzen du. Ez dirudike asko denik, baina bilakaera kezkarria du, zenbait tokitan hegemonikoa baita jadanik: Maruri Jataben udalerriko lurren %50 zuhaitz horrek irentsi du, Lemoizen %44 eta Bakion %38.

Historia laburra du Ozeaniako arbola horrek gurean. XIX. mende erdialdean lehen haziak ekarri zituztenetik duela gutxi arte, bitxikeria gisa baino ez zen landatzen jauntxoan landetxetako lorategi botanikoetan. 1958an Empresa Nacional de Celulosaren (ENCE) fabrika jarri zuten martxan Galiziako Lourizan (Pontevedra) herrian, paper pasta egiteko; orduan hasi zen eukaliptoaren hedatze meteorikoa Kantauriko kostan zehar. Elite enpresarialarekin ezkondu, agintari frankistek diruz lagundu zuten eukalipto landaketa 70eko hamarkadatik aurrera, pinuaren errentagarritasunak

goia jo zuela ikusita. Bizkaian ere pargintza industriaren eta instituzioen eskutik zabaldu zen zuhaitz hori geroxeago; diputazioak lehenik intsinis pinua (*Pinus radiata*) bultzatu bazuen, ondoren eukaliptoari heldu zion.

Eusko Jaurlaritzaren 1986ko Baso Inbentarioan 3.769 hektarea eukalipto zentsatu zituzten, 2018koan 18.750 hektarea, gehien-gehienak Bizkaian. Baina basoak kolore aldaketa handiena azken urteetan eman du: Hazi fundazioaren txosten baten arabera Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 20.000 hektarea intsinis gutxiago dago.

2018an xingola marroien gaitzak gogor jo zuen konifero hori, eta lurjabe asko eukaliptoak landatzen hasi zen haren ordeztu, berehalako etekina izateko iraganeko mentalitatearekin. Gipuzkoan 2020an bikoiztu egin da zuhaitz horrek estalitako lurralde azalera, 632 hektareatik 1.214ra (ikusitako grafikoa). Eukalipto oso azkar hazten da, 10 edo 15 urteren buruan mozteko prest dago, eta behin moztuta berriz etortzen da bere kabuz. Baina balantzaren bestaldean kalte ere neurtu behar da, emaitza osoa ikusteko. 2017ko abenduan, Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogo Espainiarreko Batzorde Zientifikoak eukalipto espezie guztiak zerrenda horretan sartzea “gomendatu” zuen. Izan ere, inbaditzaileen hiru ezaugarriak betetzen ditu: arrotza izatea, bere kasa hedatze-ko arriskua edukitzea eta ingurumena kaltetzea. “Baina gero legea aldatu eta laugarren bat sartu zuten: ustiapen ekonomikoa eman badezake, orduan ez dela inbaditzailea”, dio Elosegik.

Eztabaida Eusko Legebiltzarrerara ere iritsi zen, eta eukalipto landaketa saihes-teko ekimena atzera bota bazuten ere, legebiltzarrak ikerketa zientifiko bat egitea agindu zuen, eukaliptoak “lurrean eta bioaniztasunean izan dezakeen eragina aztertuko duena”.

ZUHAITZ “BEREZIA”

EHUKo eta Aranzadiko kideen txostenak ondorioztatzen duenez, eukaliptoak kaltegarria da ingurumenarentzat; ez bakarrik basoa ustiatzean gizakiek egindako txikizioengatik, baita berezkoak dituen ezaugarriengatik ere.

Zuhaitz berezia da oso. Itzal gutxi-koa, hostoak bertikalean zintzilikatzen zaizkio, eta argi-erregimena bertako ba-

soaren oso desberdina da; horrek oihanpeko landaredia eskasten du. Hidrofobia da beste bereizgarrietako bat: hostoak isurtzen duen olioaren ondorioz –usain partikular hori ematen diona–, urak irrist egiten du eukaliptoeko lurzoru koipetuan, eta egoera muturragoak sortzen dira eurite eta agorraldietan, batez ere %50etik gorako malkarra duten eremuetan.

Hostoak konposatu alelopatikoak ditu gainera, hau da, beste landare espezieei eragozten die inguruan haztea –herbizida natural gisa erabiltzea ere proposatu izan da–. Galizian egindako azterlan baten arabera, 6-10 urte arteko eukaliptadietan ia ez zegoen likenik, eta 25 urtetik gorakoetan beste basoetan baino %63 liken gutxiago zegoen. Areago, belarkaren dibertsitatea %40 baxuagoa da eukalipto lursailetan.

Olio esentzial hori animalientzat ere toxikoa da, Aranzadiko kideek Euskal Herrian bertan frogatu ahal izan dutenez. Anfibioak dira gure basoetako biodibertsitate galeraren iragarle nagusietakoa, ekosistemetan gertatzen diren aldaketekiko oso sentikorrak baitira. Hainbat espezierekin egindako ikerketek erakutsi dute eukaliptoaren libiatuak zuzenean nozitzen dituztela. Adibidez, baso igel-gorriaren kasuan, haien hazkuntzean, tamainan eta jauzi egiteko gaitasunean ere eragiten die –zer da jauzi ondo egin ezin duen igel bat?–, eta uhandre palmatuaren kasuan, erantzun immunean eta ugalketa-estrategian.

Ikertzaileek azpimarratu dute eukalipto lursaila zenbat eta zabalagoa izan, orduan eta kaltegarriagoa izaten dela arro guztiarentzat. Basoa esplotatzeko egungo moduak ere badu zerikusirik. Prozesagailuen bidez, azken enborra makinarekin ateratzen da, baina horrek magalak pizte zuzatzea dakar. Euskal Herrian, pinua sistema horrekin ateratzeko sorturiko erosio eta kalteen berri badugu. Eukaliptoaren moztu ondoren berriz etortzen den arren, hiruzpalau aldiro –30 edo 40 urtean behin– moztzondoak ere erauzi behar izaten dira zuhaitza berriz landatzeko. Lurraren emankortasunari ez ezik, hidrodinamikari edo, besteak beste, erreketan pilatzen den orbelaren deskonposizioari erreparatu gero, inaktua ez da nolana hikoia. Uretako ornogabe dentsitatea askoz txikiagoa da eukaliptadietan eta horrek elikadura-kate osoan eragiten du, izan arrain zein hegaztienean.

EHUko eta Aranzadiko zientzialariek

taulatxo bat marraztu dute zerrenda batekin, ikerketek eukaliptoaren inguruan esaten dutena semaforo-koloreen bidez baloratzen: puntutxo gorri eta horixkek betetzen dituzte kasik leihatila guztiak. “Aurkitutako emaitzak bildu ditugun 30 aldagaietatik, ia ez dago eukaliptoek ingurumen-eragin positiborik duenik”, dio txostenak. Beraz, pinudiak eta beste landaketak baino kaltegarriagoa da, eta jakina, bertako basoa baino askoz kaltegarriagoa ere bai.

Eukaliptoaren hostoak konposatu alelopatikoak ditu eta beste landare espezieei eragozten die inguruan haztea

Zuhaitz bakoitzak badu bere habitat txikia. Mikro mundutxo horretan, babes-tutako espezie ugari daude; adibidez, arkanbelea haritz eta artadietan aurki dezakegu batez ere, eta pagadiei loturik berriz, beste kakalardo adarluze bat


bizi da, *Rosalia alpina* izenekoa. Baina, “ez dago espezie bakar bat ere European babestuta dagoena eta eukaliptoetara lotzen denik”, dio Elosegik. Ez al da sintomatikoa?

EKAITZ PERFEKTUA URUMEAN

“Badaude toki batzuk oso gutxi urbanizatuak eta ia eraikuntzarik ez dutenak; Ereñotzutik gorako eremu hori guztia horren adibidetzat har liteke –Iñaki Sanz-Azkue ari da hizketan, Herriko Biteri Kultur Etxean bildu diren eta streamingez ere hitzaldia jarraitzen ari diren dozenaka lagunei–. Konplexutasun handiko paisaia da eta ia denean %50-100 arteko malda dugu... lotu dezagun hori lehen Arturok eukaliptoek esan duenarekin eta ikusiko duzue zein den ondorioa”.

Ez da hutsean ari Aranzadiko kidea, alderantziz, pixkanaka Urumeako txoko hartan sortzen ari den *ekaitz perfektua* marrazten ari da. Grey harriz eta arbelaz eratutako mendiotan eskorrontiako euri-ura lurrazaletik amiltzen da... eta euria egin, erruz egiten du hemen, Euskal Herriko eta Iberiar Penintsulako paraje euritsuenetakoa baita. Behean, erreka eta iturburuetan, mikrohabitat ugari eta aberatsak ditugu, “biodibertsitate aldetik oso potenteak”. Ez da harrizkoa eukaliptadiek sor dezaketen natur hondamendiaz kezkatuta egotea.

Eukalipto azalera EAEn* (hektareak)



Nafarroan apenas dago eukaliptadirik eta Ipar Euskal Herrian bat ere ez.

Urumean hiltzen den Urmendi edo Olaberri errekarri Azketa eta Kartola bailarek ematen diote bizia, baita beste ha maika adar pikok ere; ondoan Sagarretako haran ezkutua dago eta parean Usoko erreka dator Urdaburu mendiaren oinetatik saltari. Mehatxatuak eta babestuak dauden landare espezie ugari aurkitu dituzte ikerlariak horko erreka zulo eta bazter sakonetan: mundu osoan Euskal Herrian baino ikusi ez duten *Soldanella villosa* landarea, baita galzorian dagoen *Prunus lusitanica* arbola bitxiaren ale batzuk, edo tertziario garaitik bailara sakon hauetan babesa aurkitu duten iratzte paleotropikalak ere. Flora anitz eta baliotsuaren bizitoki izateaz gain, bisoi europarra, ur satorra eta mehatxaturik dauden beste ugaztun, anfibio eta arrain klase askoren aterpe ere izan daiteke toki hau.

Aiako Harria parke naturalaren eta Leitzarango biotopo babestuaren artean, korridore ekologiko funtzioa egiten du Urumeako zati honek. Sanz-Azkuek azaldu duenez, duela urte batzuk kontserbazio bereziko eremuen barruan sartzeko asmoz informazio eske deitu zioten Eusko Jaurlaritzatik, baina “hauteskundeak etorri ziren eta hortxe gelditu zen dena”. Orain, arau babesleen atzerikirik gabe, eukaliptoak bidea zabalik du. Izan ere, natur ondare hori harrapatzen duen tranpa hilgarriak badu beste hortz bat: lur gehienak pribatuak dira.

EGURZALEAK GOSE DIRA

“Baserritarrak lurra ari dira saltzen oso modu merkean Kantabriatik etorritako enpresei –ohartarazi digu Elosegik–. Herritar bezala, kezkarria iruditzen zait errekek eta pistak gure kontrolpetik kanpo geratzea. Askotan aipatzen dugu Amazonian nola ari diren kanpoko konpainiak... bada hemen gauza bera egiten ari dira, beste eskala batean”.

EAEko 2018ko baso inbentarioaren arabera, eukaliptoaren %15 titulartasun publikoko lurretan dago. Bizkaian mendiko publikoen %8,7 arbola horrek estaltzen du; Araban eta Gipuzkoan berriz, apenas dago eukaliptadirik herri lurretan, bai ordea pinudiak. Beraz, gehiena lursail partikularretan landatzen da egur ustiatzaile handiek kudeatu dezaten, eta paper lantegiak dira azken bezero nagusiak. Ez da arraroa Iberpapel edo Smurfit Kappa bezalako enpresen irudiak ikustea matarrasak eta mozketak egiten diren tokietan. Lobby zabal baten parte dira.



INAKI SANZ-AZKUE

MEHATXUA. Goiko irudian Hernaniko Kartola bailara, matarrasa eta eukaliptoak lekua hartzen ari zaie haltzadiz eta harizti mistoz osatutako lehengo paisaiari. Behean, *Soldanella villosa* landare endemikoa; bailara hauetako baldintza konplexuei esker iraun du bizirik.

Baskegur Egurraren Euskadiko Elkarteak bere webgunean dio hazten den metro kubo egur bakoitzak 275 kg CO₂ xurgatzen duela: “Mozten ditugunak baino arbola gehiago landatzen ditugu”. Baina baso guztiak berdinak ote dira karbono hobiaez ari garenean? Lurzoruko humusean eta orbelean metatzen den karbonoari ere begiratzen diote adituek, eta eukaliptadiak zutikako zur gehien bai-

na hildako gutxien duten basoen artean daude. Gainera, zelulosa pasta bihurtuta, egur horrek egiten duen bizi-zikloa oso laburra da.

Baso ustiaketa intentsiboaren ereduak, bioaniztasunari eragiteaz gain, beste ondorio batzuk izan ditzake. “Xingola marroia aspalditik ezagutzen zen, baina zergatik ugaritu dira halako izurriak? Klima? Agian bai, baina kudea-

ketak ere badu zerikusirik”, azaldu digu EHUko katedradunak. Galizian eta Asturiasen jadanik arazo larriak dituzte eukaliptoak erasotzen duen kakalardo txiki batekin. Suteak ere kezka iturri dira: Portugalen 2017ko udan eukalipto monolaboreak nola kiskali ziren ikusteak izua zabaldu zuen; baina espezie sukoia izanik ere, badirudi faktore sozialak dau dela horien zabalkundearen atzean.

ARBOLA GLOBALIZATUARI AURRE EGITEN

Eta zein da alternatiba? Zer egin gure mendi eta basoekin? Herri askotan ari dira erakusten. Astekari honen 2.721 zenbakian azaldu genizuen Muxikan Lurguaia fundazioak duen ekimenaren berri, eukaliptoak eta pinudia zegoen tokian harizti mistoa sortzeko; horretarako lurra erosi edo lagapenean hartzeko kanpaina jarri dute martxan. Ereñotzun

antzeko proiektu bat hastera doaz hango auzo udala eta Hernaniko Udala, eta beste hainbat udal ere lurra eskuratzen hasi dira bertako baso publikoen erreserbak handitzeko (ikusi Iñaki Aizpuru Itsasondoko alkateari egindako elkarrizketa erreportaje honetarako) edo eukalipto landaketa debekatu dute, Ezkio-Itsason kasu.

Han eta hemen taldeak ari dira sortzen baso autoktonoak babestu eta eukaliptoaren kalteez ohartarazteko. Bizkaian badira urte batzuk *Kolore guztietako basoak* proposamena bultzatzen ari direla, dozenaka eragile eta norbanakoren atxikimenduari. Gipuzkoan taldeak eta baso-jabe kooperatibak sortu dira Sorraluzen, Eibarren, Zarautzen, Debagoienan... Araban Uhandre Amurrioko Baso Biziak plataformak udalari eskatu dio Arabako Foru Aldundiari moratoria bat exijitu diezaiola, “eukaliptoak sortzen

duen ingurumen kaltearen ebidentzia zientifikoan oinarrituta”.

Hemendik kanpo, Asturiasko Xixon hiriak herri lurretan zituen 2.000 hektarea eukalipto ebaki eta zuhaitz hori gabeko eremu izendatu ditu. Galiziako Castroverde udalerria auzitan da lurjabe pribatu batzuekin, eukalipto landaketa eragotzi nahi duelako. Kolonbian, Sevilla izeneko herrian, Smurfit Kappa multinazionalak terrenoen erdia dauka eukaliptoetarako eta hango komunitateak borroka betean ari dira... Mundu osoan 20 milioi hektarea eukalipto dago landaturik, seguruenik lehen arbola globalizatua izango da.

Kartolako pistatik beherantz goaz matarrasak atzean utzita; zapelatzak berriz ere oihera egin digu eta urrutian ur-zozo bat ere entzuten da erreken soinuak nahastuta. Noiz utziko ote dion kantateari ez dakigu. ●



URA ETA LURRA. Eukalipto landaketa Urdaburu mendiaren ekialdean dagoen Pagosardeko urmaelaren ondoan, Aiako Harria parke naturalean. Espeziearen berezko ezaugarriek eta ustiatzeko moduek, lurra higitzeaz gain, uholde nahiz agorraldi muturrekoagoak eragiten dituzte.

“Etorkizunean lurra beharrezkoa izango dugu eta ez gaude eukaliptoekin alferrik galtzeko”

ñaki Aizpuru Itsasondoko alkatetik badu esperientziarik basogintzaz, Gipuzkoako Aldundian eta Iñobe sozietatean hainbat urtez aritua, botanikoa da. Itsasondoren bertako basoa berreskuratzen abian jarri duen programaren inguruan hitz egin dugu berarekin.

“Udalak dozena bat urte darma herriko lurrei etorkizun bat eman nahian eta horretarako terenoak erosten ari gara”. Itsasondok apenas du 10 kilometro koadroko azalera, baina badu altxor bat gibelaldean: Murumendi. “Hor oraindik nahiko baso gelditzen da, eta gainera, natur interes-gune eta korridore ekologiko gisa izendatuta dago”. Urteroko aurrekontuan diru bat erreserbatzen dute lurra erosteko eta jadanik 100 hektareatik gora eskuratu dituzte: “Eskaintza handiagoa da erosi dezakeguna baino”.

Baina lur publiko hauek zertarako erabili? Aizpuruk garbi du bertako basoak ematen duen lehen gauza “ura eta aire garbia” direla. Baina aukera gehiago ere badaude, herritarrek aprobetxatu dezaten: “Itsasondoko basoa erreserba mikologiko izendatu dugu eta Ultzamako elkartearekin lanean ari gara. Udaberrian inokulazioak egiten hasiko gara Palentziako ingeniari batekin, lehenik onddo zuria eta gero bi boilur edo trufa klase sartuko ditugu”.



ZUHAITZ EGUNA. Haur eta heldu, heskai bizia egiteko zuhaitzak landatzen Itsasondoko trenbide ondoan. ITSASONDOKO UDALA

Otsaila hasieran Itsasondoko Udalak aho batez onartu zuen eukaliptoaren aurkako mozio bat, Naturkon Gipuzkoako natur taldeen koordinadorak aurkeztua. “Gure helburu eta jokabideekin bat

zeterren, gure mendian eukaliptoak ez du kabadarik, beste bide bat egiten ari gara”, dio botanikoa. Itsasondon ez da oraindik eukaliptadirik sartu, baina “ten-tazio” horri aurre hartu nahi izan diote. Basogintzako eskumena foru aldundiarena izanik ere, Tokiko Erakundearen Legeak mendien antolaketa udalen esku uzten duela azaldu digu Aizpuruk eta udal antolaketa plana berri bitartean behin behinekoz eukalipto landaketak ez baimentzea erabaki dutela, beste udalerrri batzuetan egin bezala.

“Zenbat jende bizi gara Gipuzkoan kilometro koadro gutxitan? –galdegin du elkarriketatuak– Hektarea bakoitzeko hiru gipuzkoar eta erdi sartu behariko genituzke. Orain, COVID-19arekin, hasi gara esaten natura behar dugula, jende gehiago dabil mendian... baina ez dugu mendirik! Etorkizunean lurra gero eta beharrezkoago izango dugu eta ez gaude eukaliptoekin alferrik galtzeko”.

Bertako basoaren inguruko bestelako jarduerak herriari bitasun handiagoa ekarriko diotela konbentziturik dago alkatea: bateko eskolako unitate didaktikoak, beste basozain praktikak, unibertsitateko tesiak... Zeren eta, “hektareako gastatzen dugun diru horrekin, zer eskaini behar diegu herritarrei, eukaliptoak?”.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

**BIZITZAREN
LEHEN LERROAN!**



Euskara jakiteak motxila arintzen du, baina zeharo ez

Tarana Karim, Leocadia Bueriberi eta Palmira Dual Jiménez emakume arrazializatuak dira. Euskara ikasteak mota askotako atek zabaldu dizkie. Alabaina, euskara jakiteak ez ditu gizarteko edonoren parera ekarri: jarraitzen dute arrazializatu izaten, diferente, kanpoko. Euskaldunaren agiria lortzea zailagoa dute.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Palmira Dual Jiménez irundarra da. Gipuzkoako Emakume Ijitoen elkartearen egiten du lan. Tarana Karim Azerbaijantetik etorri zen duela hainbat urte. Tolosaldea eskualdeko Hernialde herrian bizi da. Emakumeen eskubideen alde eta arrazakeriaren aurkako borrokan ari da. Leocadia Bueriberi Ekuatore Ginean jaio eta Gasteizen bizi da. Emakume arrazializatu, feminista eta antiarrazistatzat du bere burua.

Hiru solaskideek *Euskara eta feminismoa bidelagun* jardunaldietan hartu zuten parte. Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatu zituzten saioak eta mahai-inguru osoa Youtuben aurki daiteke *Hizkuntza, generoa eta beste menderakuntza batzuk* izenburupean. Han esandakoen laburpena jaso dugu hemen.

ATEAK IREKI ZAIZKIE

Euskara ez jakitea mugatzat dute eta urteetan aukera berrietarako atek nola zabaldu zaizkien kontatu dute. Alor kulturean, sozialean, politikoan eta lan munduan errazago edo gehiago sartzeko balio izan die euskarak. Bueriberik alor publikoan lan egiteko eta formakuntzarako hizkuntzaren balioa azpimarratu

du. Gizartean parte hartzen duela sentitzen du, hizkuntza jakin gabe giro eta paisaia euskaldunetara hurbiltzeko gogo izatea zailagoa dela uste du. Herri mugimenduen testuinguruan pribilegiatu sentitzen da, euskara ez dakitenak kanpoan geratzen direlako.

Aukerak bai, baina tamainan nonbait. Karimek argitu nahi izan du parte hartzeko eta iritzia emateko bideak ireki zaizkiela, alegia, ikusle izateko aukera dutela, baina ez erabakietan parte hartzeko.

Euskarak motxila arintzeko balio dezake. Hala gertatu zaio Duali. Emakumea eta ijitoa izanda, motxilan harri asko daramatza eta euskara ez jakitea oztupo bat gehiago da: “Emakumea eta ijitoa izan eta gainera euskaraz hitz egiten ez badakizu, panorama itsusiagoa da. Herri honetan parte hartzen dudala sentitzen dut, pribilegiatu sentitzen naiz”.

EUSKARA EZ DA GILTZA BAKARRA

Bertako hizkuntzak ez ditu ate guztiak irekitzen, euskarak ez ditu arrazakeriaren arrastoak desagerrarazten eta eguneroko bizitzan, izan lanean, kallean, herri mugimenduetan... pertsona arrazializatu sentiarazten dituzte. Duallek, ezezagunen aurrean, galdera asko

saihesteko estrategia erabiltzen du: ez du bere burua emakume ijito moduan aurkezten. Bestela, jatorriaz eta ohiturez egindako galderei erantzun beharko lieke edo “ez duzu ijitoa ematen!” moduko oharrak entzun beharko lituzke. Ijitoa da, hemengo eta euskara ikasi du: “Hemengo ez banintz bezala sentiarazten naute”. Buruan zapia eramatearen zamaz hitz egin du Karimek. Jendeak zailtasun handiak ditu zapia eta euskara lotzeko: “Harritzen dira euskaraz daki-dalako. Ni ez naiz gai hizkuntza bat ikasteko ala?”. Arrazializatu eta migratuek ditugun estereotipoak gainetik kentzeko garaia dela dio Karimek. Euskaraz jakin arren, arrazializatu, diferente eta euskaldun moldetik kanpoko izaten segitzen dute. Estereotipoen harira, Bueriberik bere larruazalean sentitzen du nola besteek erabakitzen duten berak zer izan behar duen, “eta hortik ezin naiz atera”. Gizarteak jendeak nola multzokatzen dituen salatu du. Azal koloreak edo gaztelaniaz hitz egiterakoan daukan doinuak eragina du irudi eraiketa horretan. Kanpokatzen hartzen dutela dio: “Beti izango naiz kanpoko. Euskara jakin arren, euskaldun txartela zailagoa daukat”. Bere burua euskalduntzat du eta gizartearen iruditerian, berriz, euskalduna izateak

esan nahi du zuria izatea, janzkera bat, ezaugarri kultural batzuk... Hala, besteek euskalduntzat ez dutela uste du.

EUSKARA EZ DAKITENAK DISKRIMINATUTA

Feminismoak generoaz gain bestelako zapalketak mahai gainean jarri eta ahizpatasunaren bidea jorratzea aldarrikatzen du. Azken urteotan, mapa horretan, euskara eta euskal kultura kokatzeko gogoetak ugalduta dira. Batzuetan eztabaidak beroak izan dira, zapalketak kategoriatan ezartzeko arriskua bistan dela. Ildo horri heldu diote Bueriberik eta Karimek. Haien testigantza baino, gaur egun euskaraz ez dakiten migratuen errealitatea bistaratu nahi izan dute. Haien ustez, mugimendu feministan, euskaraz ez dakitenak diskriminatu egiten dira deialdiak, ekintzak, eztabaidak euskara hutsean egiten direnean. Bueriberik Martxoak 8 eta ekainaren 28a aipatu ditu adibide gisa: “Badirudi euskaraz ez dakienak gai horietaz interesik ez duela”. Euskara ez dakiten migratu eta ez-migratuengana nola iritsi galdetzen du Karimek, baldin eta haiengana iristeko euskara baino ez bada erabiltzen. Gaztelania eta ingelesa ere erabiltzearen aldekoa da.

Hausnarketa sakona egiteko dago: nola lortu era guztietako zapalketak kontuan hartzea, tartean euskarak eta euskal kulturak pairatzen dutena alboratu gabe? ARGIAren 2717. zenbakian, *Erdaldunek euskal komunitatea aitor dezaten lanean* artikuluan Mariluz Estebanek, Saioa Iraolak eta Elurre Iriartek gai hori jorratu zuten.

IKASTEKO ZAILTASUNAK

Itzul gaitezen euskara ikasi duten gure hiru solaskideengana. Gogorarazi dute euskara ikastea ez dagoela migratuen lehentasunetan. Lana egin eta soldata irabaztea da erronka nagusia. Emakume migratu gehienak prekarioak dira, lanordu asko izaten dituzte, hainbat tokitan aritzen dira, kontraturik gabe. Bizi-



Elhuyar Fundazioaren egoitza nagusia, Usurbilen, egin zuten mahai-ingurua joan den azaroan. Ezkerretik eskuinera, Palmira Dual Jiménez, Tarana Karim eta Leocadia Bueriberi.

JUANI CARLOS RUIZ/FOKU

tza prekarioen puzzlean euskara parean etortzea oso zaila da. Prekarietateaz gain, migrazioari lotutako bereizgarria aipatu dute: utzi dutenaz dolua egiteko premia, leku berrira egokitzeko beharra. Askok gaztelania ere ikasi behar dute, “derrigor”.

Euskara ikasteko astia hartuta ere, Karimi harrigarria zaio bertako hizkuntza ikasteak zenbateko kostu ekonomikoa duen: “Bertako hizkuntza da, baina ez du ematen”. Aspaldiko aldarria da euskara doan ikasi ahal izatea, oraindik lortu ez dena. ●

BABESLETZA:



Hondarribia
euskaraz bizi



YAKU PEREZEN ESANGURA

Ezkertiar kontserbadoreentzako gogoeta

Apirilaren 11n egingo da lehendakaritzarako hauteskundeen bigarren itzulia Ekuadorren. Azkenean, Andrés Arauz eta Gillermo Lasso lehiatuko dira. Azken honekin bigarren posturako lehia estuan aritu den Yaku Pérezek –egun luzez bigarren postuan– irregulartasunak salatu ditu. Politikari indigena hobeto kokatzeko hainbat pista eskaintzen dizkigu Juan Gorostidik ondoko analisisan.

 JUAN GOROSTIDI BERRONDO

2019ko udako arratsalde hartako azken orduan, Yaku Pérezek bere bulegoan hartu ninduenean, banekien denbora preziatua lapurtzen ari nintzaiola. Goizeko zortzietatik gauera arte edozein motatako herritar taldeak entzuten pasa zuen eguna –horretarako zituen erreserbatuak asteko bi egun oso, gure lehendakariaren mailako prefetak–. Sekulako akidura sumatu nuen haren begitardean, baina baita sakon-sakonean ernatutako pazientzia ere. Horren jakitun, bi galdera prestatuta nituen, funtsean Ameriketako indigenen erresistentziari zegozkionak eta, zehatzago, XX. mendean gauzatutako bi baga iraultzaileen inguruan. Lehena, altxamendu armatuena izan zen (Kuba, Nikaragua eta gainontzeko herrialde guztietako gerrilla iraultzaileak). Bigarrena, herrialde askotako gobernuetara jaso zen gobernu progresistena (Lula Brasilen, Evo Bolivian, Correa Ekuadorren...). Hauen guztien porrotaren mikatza nabari da askorengan Hego Amerikan. Gaia ongi hausnartua zuela erakutsi zuen haren erantzunak:

“Aipatu duzun testuinguru zabal horretan, esan genezake betiko eskunik nahiz ezker tradizionalak ez diotela erantzun egokia eman jendartearen beharrei. Biak kolonialak direlako, agian; harrapaketa eta menderakuntza dituztelako lege; patriarkatua, merkantilismoa, kapitalismoa. Eskuina betidanik izan da itxiagoa, atzerakoia, kolonoen oinordekoa inguru hauetan, oligarkikoa; eta ezkerre jendearen eskubide zapalduen izenean altxatu izan da baina,

boterea ukitu duen bakoitzean, modu bertsuan urratu ditu eskubide horiek. Eskubide ukatu eta urratu horien artean funtsezkoenak dira naturarenak. Hankaz gora dabilen munduan bizi gara: “Giza Eskubideak” hitzartu ziren, baina ez oraino Ama Naturarenak. Ikusmolde antropozentrikoak bizi gaitu, errealitate kosmozentrikoa ahaztuz”.

“Eskuindarrak, liberalak, neolibera- lak, modu askotariko diktadurak, ezkerreko erregimenak eta gobernuak; progresistak nahiz atzerakoiak... entzungor dira jendartearen oihu desesperatuaren aurrean”, jarraitu du Pérezek. “Eta bai, nik ere antzematen dut hirugarren baga hori, jatorrizko herrien mundu-ikuskeratik sortzen ari dena. Ekologiarekin sentibera dena, nahitaez; lehen ekologistak jatorrizko herriak izan baitziren; Ama Lurra objektu gisa ulertu beharrean, Lehen Sortzaile gisa kontsideratzen zuten, eskubidez jantzia. Jatorri judu-kristaua duten zibilizazioetan ez bezala, hortik dator gurean maitasunez oharatzen dugun Ama Lurrarekiko begirunea”.

“Haiek –berdin Biblian ala Koranean oinarrituak izan– lurraren menderatzeaz ari dira lehen hitzetik, erauzi eta ustiatu behar den objektu inerte batez. ‘Aurrerabidearen’ izenean, ezker zaharra eta berria ez dira ildo horretatik desbideratu, funtsezko ikusmoldeak daude hemen talka egiten”.

Hamaika ñabardura egin geniezaieke baieztapen horiei, baina ahaztu gabe geu garelako kolonizatzaile haien oinordekoak eta Yaku Pérez, berriz, behin eta berriz

desagertzera bultzatua izan den populu batzuen: eta ez bakarrik espainolen eskutik, haiek ailegatu baino lehen inken inperioren sarraskia jasan behar izan baitzuten.

Europako ezkertiarrek –eta gehien nabarmentzen diren mundu osokoak ere, horien eragin eta itzalpe kolonialean– kontserbadoreak gara. Gure ereduak “bi mendeko porrot loriatsuetan” atxikiak ditugu. Progresoaren mitoaren seme-alabak gara eta eredu patrimonialaren gatibu. “Zer nahi duzu, hainbeste sakrifizio eta odol eskatu duen hamarkadetako borroka errekaratzea?”, arrapostu egin zidan orain ez asko Kuban bizi den ezker abertzaleko ikono historiko batek. Nik, gure 1980ko hamarkadako noraezaren azterketa eta kritika egiteke genuela esan nion eta, horren ondorioz, onartu ala ez, hamarkadetako atzerapena eta erreferentzialtasun falta erabatekoa zela hurrengo belaunaldiekiko. Nahiago kulunkatu malenkoniaz blaituriko gazte garaitik datorrigun oroitzapen galduetan. “Gurea, eskuzabala izan zen eta zenbait gauza lortu dugu, garai haietan amestu ere ezin genituenak”.

IRAGANEKO BETAURREKOAK

Azken urteko krisiak erakusten duena, aldiz, beste zerbait da, baina ezker kontserbadoreak nahiago du ezer berezirik ez zaigula gertatzen ari aldarrikatzea. Fisikoki desagertzen ari den belaunaldi bati itsatsita geratu zaizkio errealitatea begiratzeko orain hamarkada asko jarritako betaurrekoak, eta nahiago du bildu

duen botere apurra edo itzal handia bere lotsak ala nagiak estaltzeko erabili.

Horren jakitun aipatu nion Yakuri oso eredu sakonen arteko talkaz ari ginela, eta Ekuadorreko indigenen artean sumatzen nuen erresistentzia motek nire eskemetatik kanpo geratzen zen zerbait erakusten zidatela. “Non dago zuen indarraren iturburua, non zuen esperantzarena?”, bota nion azkenean, lotsagabe.

“Esperientziak esaten dit ez dagoela ezinezkorik. Orain hogeitazero bantzuen ameskeria zirudien herri-galdeketa bat antolatzea multinazional txinatar handi bati aurre egiteko Kimsakotxan. Eta gertatu berri da. Komunitarismoa edo biozentrismoa izenekin adierazten duguna azaleratzen denean, muga ideologiko zaharrak gainditu egiten dira. Hori kapitalismoaren, sozialismoaren edo komunismoaren esparru ideologikoen gainetik suertatzen ari da. Ez diet aurreko ahalegin askatzaileei uko egiten, halere; baina onartu behar motz geratu

zirela jatorrizko herriak begiratzeko orduan, genero auzian, naturaren eskubi-deak ulertzerakoan”.

“Horrexegatik sortzen dira proposamen berri hauek, ez direnak eskema itxi batzuetara murrizten; ikusmolde zabal, ireki, interkultural eta plurinazional batez elikatzen dira. Ez gara sektarioak, ez gara ‘indigenistak’, hitz horrek izan duen zentzu murriztailean. Eta hortxe bertan pizten dira esperantzak, ametsak, utopiak... gazteen bultzadagatik. Horiek gabe ez goaz inora. Gazteak jabetzen ari dira larrialdi klimatikoa zibilizazioaren larrialdia dela. Eta berezko duten irreberentziaz, ausardiaz hausten dituzte eskema eta eredu zaharkituak eta kalean daude Yasuniren defentsan, Tipnisen defentsan, Amazoniaren defentsan eta, beste behin, bestelako mundu bat posible dela irudikatuz. Ikusmolde berria da: ekintza txikiak sustatuz eragin globalak izango direla uste duena; hemen edo Indian uraren defentsan ari ga-

renean Himalayan du eragina; Danubio ibaiari gertatzen zaionak ondorioak ditu Madagaskarren. Ezagutza zientifikoa eta antzinako mitoak eta erritoak, haien ikonografia indartsuarekin bat datozenean, posible da gazteekin eta haiek diren esperantzarekin elkartzea”.

Isildu nintzen orduan, bururatu zitzaidalako hitz hauen oihartzunak “historia” izendatzen dugun horren oso aurretik zetozkidala, eta oihartzun horren aginteak errespetu sakratua merezi zuela.


Europako ezkertiar kontserbadoreak Ekuadorreko azken hauteskundeetan Rafael Correa ustel totalitarioaren alde lerratu dira, hura baizen progresoaren aldeko “alternatiba egingarri bakarra”. Ezin dute ulertu Yaku Pérezek ordezkatzen duena beste zerbait dela eta, ulertu ezean, eldarnio beltzaren zorabioan galtzera dira kondenatuak, bizitzak ez baitu barkatzen, eta hura ez baita elikatzen zaharron lorietatik. ●

INDIGENEN MARTXA

Yaku Pérezen jarraitzaileek irregulartasunak salatu dituzte botoen kontaketa eta protesta martxa jendetsuak antolatu dituzte.



Oihal moreak sutan




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

New York, 1911ko martxoaren 25a. Triangle Shirtwaist ehungintza fabrikak su hartu zuen eta 146 langile hil ziren, gehienak, 123, emakumeak, 14 eta 48 urte bitartekoak. Suak agerian utzi zituen langileen baldintza latzak; besteak beste, lanordu luzeetan giltzapean izaten zituzten, eta horregatik izan ziren hainbeste hildako. Gertaera funtsezkoa izan zen Ehungintzako Emakume Langileen Nazioarteko Sindikatuen sorreran eta, oro har, emakume langileen aldeko borrokan.

Teoria baten arabera, kolore morearen eta feminismoaren arteko loturak ere Triangeluko sutean du jatorria. Sua piztu zen unean, alkandora moreak ekoizten ari omen ziren eta hiri guztian ikusi zen kea morea omen zen, tinduaren eraginez. Sutearen zuri-beltzeko argazkietan ezin da horrelakorik antzeman eta bestelako testigantzarik eta frogarik ez dago. Badakigu, ordea, hiru urte lehenago, ozeanoaz bestaldean, emakumeen eskubideen aldeko aitzindariak morea propio aukeratu zutelako kolore ofizialtzat.

Emakumeen sufragioaren aldeko elkarteak Londresen sortu zen 1903an. 1908an mugimenduaren bandera eta, beraz, kolore ofizialak, aukeratzea erabaki zuten: morea, zuria eta berdea. Emmeline Pethick (1867-1954) kideak heldu zion enkarguari: "Morea errege-erreginen kolorea da, eta boto eskubidearen aldeko borrokalari bakoitzaren errege-odola sinbolizatzen du, guk guztiok daukagun askatasun kontzientzia eta duintasuna.



1908KO EKAINAREN 21EKO MANIFESTAZIO SUFRAGISTAN ERABILI ZIREN LEHENENGOZ MUGIMENDUAREN KOLORE HAUTATU BERRIAK: MOREA, ZURIA ETA BERDEA.

Zuriak bizitza pribatu nahiz politikoa- ren garbitasuna adierazten du. Eta berdeak hasiera berri baten esperantza". Urte hartako ekainaren 21eko Londresko manifestazio jendetsuan erabili zituzten lehen aldiz hiru koloreak; martxa 30.000 emakumek abiatu eta, amaieran 300.000-500.000 bildu ziren.

Mugimendu feministak aurrera egin ahala, sufragisten muga moral, politiko, ekonomiko eta etniko hertsia gaindituz joan zen eta, hala, banderaren lerro zuria baztertu zuten. Eta berdeak hasiera sinbolizatzen zuenez, hura ere baztertu-ko zuten 70eko hamarkadan, feminismo "tradizionalaren" ikurtzat zutelako.

Moreak, aldiz, arrakasta izan zuen be-

rehala. Esaterako, 1917ko iraultzaren ondoren, SESB jaioberrian Aleksandra Kollontai (1872-1952) izan zen emakumeen eskubideen bultzatzaile nagusia, eta alderdiaren iruditeria monokromo gorria morez ordezkatu zuen emakumei buruzko edukietan; sufragista ingelesek erantsitako kutsu monarkikoa kenduta, jakina.

Ez dakigu 1911ko sute hartan oihal moreak kolore horretako kea eragin ote zuten eta horrek eragina izan ote zuen feminismoaren eta morearen arteko loturan. Baina Emmeline Pethickek urte batzuk lehenago aukeratutako koloreetatik morearen askatasuna eta duintasuna irisi dira gaurdaino. ●



Arrosa eta urdina nahastuta?

Beste teoria batek dio arrosa eta urdina- ren nahasketa delako aukeratu zutela mo- rea feminismoaren koloretzat, nesken eta mutilen kolore tradizionalak bat eginda berdintasuna adierazten omen dutelako. Baina "tradizio" hori oso berria da, azken bizpahiru belaunaldietan errotutakoa, eta inolako oinarririk ez duena. Bigarren Mundu Gerra aurretik, kontrakoa iradoki-

tzen zuten, koloreen bidezko bereizkeria horrek zentzurik ez daukala agerian utziz. 1918an *Earnshaw's Infants Department* aldizkari komertzialak zioenez, "arrosa kolore ausartagoa da, indartsuagoa, mutilentzat egokiagoa" eta 1927an *Time* aldizkariak jaso zuen New York, Chicago eta Bostongo saltokietan arrosa gomenda- tzen zutela mutikoentzat. ●

NORK ZAINTZEN DU?

JAR DEZAGUN AGERIAN.
EGIN DEZAGUN DAGOKIGUNA.



Zaintza lanak **IKUSI, BALORATU** eta **BANATU**.
Emakume eta gizonen, erakundeen
eta gizarte osoaren zeregina da.

MARTXOAK 8
Emakumeen Nazioarteko Eguna



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

*Euskadi,
auzolana*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SARLA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Zaintza espazioa, talde-lanaren onurarako

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Zaintza espazio bat dute TaPuntun. Langileen alde emozionala eta proiektuak garatzerakoan talde-lanean sortzen diren korapiloak lantzen dituzte bertan. “Elkar zaintza ongi egiten denean, talde-lana errazago doa, komunikatzeko erraztasun handiagoa egoten da inork gauzak pertsonalki hartu gabe... zaintza oinarria da, beraz”.

Hamabost egunean behin 45 minutuko tartea eskaintzen diote zaintzari, eta huts egin ezin den hitzordua da langile guztientzat. Beharren arabera, zaintza espazioa egiteko lekua aukeratu izan dute: kalera joan izan dira, edo bulegoan denak elkartzeko duten lekuan, batzuetan ezinbestez on-line... “45 minutu motza da, egia esan. Zaintza lanak eskatzen baitu lehenik gaian lur-hartzea. Beraz, ez da denbora asko, baina bada zerbait”, nahiago dute baikortasunez baloratzea tarte hori.

Zaintzaren arduradun bat dute, eta bolada baten ostean, funtzio hori beste langile batek hartzen du. Saioa gidatzea da arduradunaren lana: kanpoko begirada izatea, hitza banatzea...

Elkarri begietara begira gauzak esatea da zaintza espazioaren funtsa. Egunerokoan langile bakoitzari barruan sortu zaizkion korapiloak taldean mahai gainean jartzea eta elkarrekin askatzen saiatzea. Gune formal honetan arlo emozionalaz eta talde lanean sortutako krikikrazez hitz egiteak txutxumutxuak saihesten ditu. Langile bakoitzari oso lagungarri zaio besteen ikuspegia jasotzea, egoera berbera bakoitzak era batera bizi baitu, eta zaintzaren bidez lortzen dute elkarri hobeto ulertzea.

ALDE EMOZIONALA ETA TALDE-LANETAKO GORABEHERAK ZENTRORA

Zaintzan bi eremu lantzen dituzte: bata da proiektuak garatzerakoan sortutako gorabeherak. Talde lanak ez badu funtzionatu, edo norbaitentzat gustukoa izan ez den zerbait gertatu bada... hori guztia lantzen dute, zer gertatu den eta bakoitza nola sentitu den.



Beste alorra da alde emozionala. Pertsonontzat egun denak ez dira berdinak, zer esanik ez pandemia batean. TaPuntukoek adierazi dutenez, “guk ulertzen dugu lanera gatozenak pertsonak gabela eta denok dugula gure bizitza. Zaintzaren funtzioa litzateke ulertzea langile horren bizitzako egoera nolakoa den, lanari ekiteko orduan. Baina laneko begiradatik hitz egiten dugu, etxeko egoerak zer eragin daukan lanean”.

NORABIDEARI EUTSIZ, BAINA BAT-BATEKOTASUNARI LEKU EGINEZ

Harago aholkularitzarekin lanketa egin dute eta atera dituzten ondorioetan oinarrituta, zaintza espazioak badu bere bide-orria edo norabidea. Baina aldi berean, bat-batekotasunari eta malgutasunari eusten diote: “Adibidez, bilera baino bi egun lehenago zerbait gertatu bada, gai hori luze lantzeari denbora ematen diogu. Iparra galdu gabe baina zaintza espazioak malgua izan behar du, momentuko beharrei erantzuteko”.

2015ean sortu zuten TaPuntu kooperatiba hiru bazkidek. Enpresa ekonomia sozial eta eraldatzailearen baitan kokatzearekin bat, garbi izan zuten egunerokotasunean zaintza txertatu behar zela eta berezko espazio bat ere eskaini behar zitzaioela. Egun zazpi pertsona dira bertako langile eta hasierako oinarri ho-

ri eusten diote: “Egunerokotasunean ere egiten dugu zaintza. Ikasten ari gara, ez dugu zaintza espaziora arte itxaroten batzuetan, bidean sortzen doazen gorabeherak mahai gainera ateratzeko”. ●



TAPUNTU

**TAPUNTU KOOPERATIBA
ELKARTE TXIKIA**

www.tapuntu.eus

Zer egiten du: Enpresei beraien nortasuna sarera eramateko aholkularitza zerbitzu integral eta pertsonalizatua eskaintzen die: formazioa, marketin digitala, diseinu grafikoa, multimedia...

Langile edo bazkideak: 7.

Noiz sortua: 2015ean.

Egoitza: Usurbilen.

Harremanetarako: 691166409
info@tapuntu.eus

Ikerketa kazetaritzaren gakoak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ahoztar Zelaieta Zamakonak ikastaroa eman die ARGIAko lantaldeko hainbat kideri. Ikerketa kazetaritzaz. Egin eta *Ardi Beltza* hedabideetako ikerketa taldeetako kide izandakoari ARGIAk egin dio proposamena: *Zaldibar. Zona zero* liburuaren egilea hainbat herritan zabor-jausiari eta atzean duen ustelkeriari buruzko hitzaldiak eskaintzen ari dela baliatuz, galdetu zaio ea prest legokeen “klase” bat emateko ARGIAko kideei.

Erredakzioaz gain, komertzial eta idazkaritza sailletako langileek ere eman zuten izena saiorako eta hamaibost bat lagun bildu dira denera otsailaren 19an. Izan ere, lanpostu guztientzat da oso erabilgarria informazioa eskuratzeko iturriak ezagutzea eta komunikazio proiektu baten lehengaiak ezagutzea. Bertan egon den kazetari baten hitzetan, “uste dut unibertsitatean pasatako urte guztietan ez dudala horrelako klaserik jaso”. “Informazioa nondik jaso, iturriak nola landu, informazio hori nola interpretatu eta kontrastatu, zer galbahe pasa fidagarritasuna lortzeko... pista asko eman dizkigu”, azaldu digu.

Teoria bere praktikatik eta esperientziatik azaldu du Zelaietak, eta informazio-iturri izan litezkeen guneen ze-

rrenda luze bat eman die bertaratutako guztiei. Esaterako, enpresen karguen inguruko informazioa lortzeko zein iturritara jotzea komeni den; erakunde publikoek esleitutako kontratuen jarraipena egiteko non begiratu; norbanako eta enpresek dituzten jabetzen berri non eskatu; buletin ofizialetan bilaketak nola egin eta topatutako informazioa nola gorde; epaiak non ikuskatu...

Baina aipatu ditu ikerketa kazetaritza egiteak dakartzan tentsioak ere. Horrelako lan bat egiten denean kanpoko eragileekin harremanak tenkatzen dira eta momentu horretan taldearen babesaren garrantzia azpimarratu du. Bakarrik ez sentitzearen garrantzia, talde izaeraren indarra... baita tentsioak sortutako kanpoko eragileekin harremanak nola kudeatu ere.

Eta nola ez, baliatu du ARGIAk egiten duen kazetaritzaz duen iritzia emateko eta kritika zintzoa egiteko. Hitzaldian zehar hainbat erreportaje eta bideo egiteko ideiak atera dira.

Horrelako formakuntza saioek asko laguntzen dute aurrera begira kalitatezko kazetaritza egiteko oinarria lantzen. Emandako goi mailako klaseagatik, jarritako umoreagatik eta eskaintako gaikoengatik, eskerririk asko ARGIAko lantaldearen izenean. ●



ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrozoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Euskal kulturaren inguruko telebista saio bat ikusi ondoren horrelako proiektuak bultzatzearen garrantziaz ohartu naizelako”.

Galdakaoko Aintzane

“Iritzi-artikulu interesgarriak direlako, baita euskara ikasteko ere”.

Donostiako José Ignacio

“Egunerokotasun handia eta garrantzitsuak diren gai ikusezinak agertzen direlako, seriotasun, zintzotasun eta sakontasuna oinarrian izanik”.

Donostiako Saioa

BURU ETA BIHOTZEA EUTSI LURRARI



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Iñaki joan da. Orendaingo Larraspiko Iñaki oso gazte joan zaigu. Heriotza guztiak ematen du min, baina, min hori urruneko bazterretaraino hedatzen denean, berak ematen du galera horren neurria. Iñaki nekazari eredugarria zen. Ekintzailea baina sen berezia zuena, zertorrenari usaina hartzen iaioa, egin beharrekoa zirt-zart erabaki eta egiten zuen horietakoa. Esne-behiak zituzten etxean, etxe-behiak, etxeokak eta halaxe zaintzen zituen, arrebanaiekin batera. Gaur egun, esnetarako behi asko kanpoko jatzenarekin elikatzen da, ez daude lurrari lotutako baserrietan. Haztegi hutsak dira: janaria ez dute bertako lurretan sortzen, ez dute inolako loturarik inguruarekin, ez dute paisaiarik zaintzen eta benetako kulturarik sortzen. Gure Iñakik ezin zuen hori ikusi ere egin. Larraspin, inguruko lurrak ustiatuz elikatzen dute etxeok behikundea. Soro eta belazeetatik bazkak, eta lurpe sakon araztetik ura. Ukuilu horretatik ateratzen den esnea bai, horri esan dakioke bertako esnea. Ez bertan ekoiztiko esnea, bertako jakiak eta urak janedan dituen eta etxekotzat den azienak eman duen esnea.

Larraspin, behien elikadura osatzeko, lurpetik ateratako ura biziberritu egiten da. Lur sail asko gorritu eta soro bihurtuta bazka ugari propio sortzen da. Artoa (*Zea mays*) adibidez. Baina berak bazuen susmo bat: lur onik gabe, bazka onik ez.



Susmo horren argitze bidean egin genuen topo. Behiak elikatu baina era berean lurra ere elikatu nahi zuen. Ongariketa zen bere kezka nagusietako bat. Horretantxe laguntzeko eskatu zidan, lurraren kalitatea zaintzeko bidelagun hartu ninduen. Nik lehenengo esan niona, ez naiz errepikatzen sekula aspertuko: lurraren bizi-zia zaindu behar da. Kakoa erraz esan eta ulertzen da, baina gauzatzea beste upeleko sagardoa da. Tresneria egokiarekin, ahalik eta eskulan gutxiarekin eta gure eguraldiak uzten dizkigun lanerako tartearak baliatuz, ondo lantzeko moduko lur sail aproposak gutxi dira. Horrela lur horretan lantzen dena milimetrora neurtu behar da eta bi helburuak bete: lurra aberastu eta kalitatezko bazka mandiora-

tu. Lurrari eman eta lurretik hartu. Garia (*Triticum aestivum*), garagarra (*Hordeum vulgare*), zekalea (*Secale cereale*), oloa (*Avena sativa*), txirta (*Vicia sativa*), ilarra (*Pisum sativum*)... Zer ez zen hazten soro haietan. Ongarri berdearen teknika maitatzen zuten: laboreekin lurra sakonean harrotu, eta elikagaiak goratu, lekaleekin lurra nitrogenoz asebeta eta etxekoentzat bazka hauta bikaina eskuratu. Ukuiluko mindak inguruko lurretan sortzen duen arazo larriaz jabeturik eta etorkizuneko apustu garbia eginez, haiek lurperatzeko makina ekartzen lehena izan zen. Mindekin batera sorturiko simaur solidoa ere luartzan aparteko saioak egiten zituen. Denak bere lurren onerako.

Iñaki ez zen nekazarien ezkutuko parronak eta jauntxoek eta kazikeek esaten dutenera lepoa makurtzen zuen uzta-behia. Eredugarria zen askorentzat, eta bidea erakutsi du. Beste gazte askok bezala.

Hutsik egin gabe, argitaratu ditudan liburu guztiak bere amarentzako eskaintza bereziren batekin bidaltzeko eskatzen zidan. Azkenaldian maizen erabiltzen dudana eskaintza lehen orrian idatzi, "Maiterentzat, buruz eta bihotzez eutsi lurrari" eta bidali nion *111 hostoz eta orriz jantzi* liburua. Bertan ditu bere semearekin eta beste askorekin landutako eta ikasitako makina bat lezio. Musu bat Maiteri eta etxekoei. ●

Etxeko landareak

Hitzaldia antolatzeko

Osasun neurriak zainduta zure herrian Jakoba Errekondoren hitzaldia antolatu nahi baduzu, idatzi:

bizibaratzea@bizibaratzea.eus



BASERRITIK GERNIKARA

MERKATU PLAZA, SAREAN ERE MARTXAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Gernikako Allende Salazar eskolako jantokian tokiko produktuekin janaria prestatzeko borrokan aritu dira azken urteotan bertako guraso, baserritar eta eragileak. Lehenagotik zetorren elkarlan horretatik proiektu berri bat jaio zen konfinamendu garaian: baserritikgernikara.eus. Inguruko baserritarren produktuak online eros ditzakete kontsumitzaileek geroztik. Salmenta zuzena bultzatzeko beste bide bat jorratu nahi izan dute bultzatzaileek: “Elikadura burujabetzarako bidean herritarrei ahalik eta alternatiba gehien eskaintzea da ideia”, azaldu du Dabid Zelaia-Zugadi kideak.

SARETUTA EGOTEAREN GARRANTZIA

“2016an hainbat ekoizle Allende Salazarko jantokia hornitzen hasi ginen eta baserritarren sare bat sortu zen. Horrek elkar ezagutza, enpatia eta konplizitatea ekarri zituen. Azkenean, guztion onerako sinergiak sortzen dira horrelako proiektuetan”, dio Zelaia-Zugadik. Elkarrekin lanean ari ziren horiek aspaldian zuten buruan salmenta zuzenerako



webgunea sortzea, baina azkenean, iazko martxoan ekin zioten bideari. Konfinamendu garaian sortu zen, baina ez zen konfinamendurako sortutako tresna, denboran mantentzeko asmoz abiatu zuten.

Proiektu kolaboratiboa da Gernikakoa, erabakiak denen artean hartzen dituzte, eta elikadura burujabetza hegemonia irabazten joateko beste pieza bat bezala ulertzen dute. “Kontziente izan beharra dugu oraindik marjinalak izaten jarraitzen dugula: Euskal Herrian jaten dugunetik %10 soilik da bertan ekoizitakoa, eta gure hozkailuko produktuek 5.000 kilometroko bidea egin dute kasu askotan”.

ESKAERAK LOKALEAN EDO ETXEAN JASOTZEKO AUKERA

Hainbat ustiategitako 30 bat pertsonak hornitzen dute webguneko azoka, eta denetik aurki daiteke bertan: barazki freskoak, ogia, esnekiak, fruta, haragia, perretxikoak, marmeladak, ezta, arrain kontserbak... “Astelehenetako merkatua da, baina euskarri birtualera eramana”.

Herritarrek asteazken eguerdi arte dute eskariak egiteko tartea. Ordainketa internetez egiten da, eta ondoren elikagaiak jasotzeko bi modu dituzte: Baserritik Gernikara egitasmoaren lokalean jaso ditzakete ostegun arratsaldetan, edo etxean bertan ostiral goizetan. Erosketa jasotzera pasatzen direnek bi euro ordaintzen dituzte, eta etxean jasotzen dutenek, berriz, lau. “Saskiak prestatzeko, logistikarako nahiz webgunearen kudeaketa gastuak ordaintzeko darabilgu”, dio kideak. Pozik daude egitasmoak hilabeteotan izandako erantzunarekin, merkatu plazak betiko jendea mantentzeaz gain, online azokak ere bere bezero propioak lortu dituelako. ●

Zure osasuna zaintzeko garaia da. Bertokoa eta ekologikoa kontsumitzeko garaia da.

eko lurra

Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

“ ”

Komikiak ahalmen hori ere badauka, hain ezaguna ez den alde iluna azaleratzekoa

Mikel Begoña

Komiki gidoigilea

Berunezko itsasoa komikian Matxixako lurmuturreko itsas gudua irudikatu zuen, eta *Tristísima ceniza*-n Sollube mendikoa, biak 1937an gertatuak, Espainiako Gerra Zibilean. *El pico de los cuervos*-en frankismo garaira egin zuen salto; eta bere azken istorioa, *Helize*, Bizkaiko ontzioletako ingurumarietan gertatzen da, Lehen Mundu Gerran. Historia hurbila.

✍ JON TORNER ZABALA 📺 HODEI TORRES

Historian lizentziatua, liburuzaina... Artxibo eta dokumentu artean beti. Nolatan bururatu zitzaizun bildutako informazio hori guztia komikira eramatea?

1990eko hamarkadan irakasle aritu nintzen. Klasean filmak proiektatzen nituen; uste dut zinema bitarteko aproposa dela gai batzuk jorrazteko, ikasleei astuna egin dakiekeen materiala arintzen laguntzen du. Garai hartan Frantziako komikigintza ezagutu nuen, eta generoaren inguruko beste ikuspegi bat eman zidan. Aljeriako Independentzia Gerrari eta Parisko Komunari buruzko komikiak, Jacques Tardirenak... Flipatu egiten nuen. “Arraioa, guk ere historia aberatsa daukagu; zergatik ez horrelako zerbait?”, pentsatzen nuen.

Hain justu, Frantzia eredu dela esan ohi duzu zuk.

Bai, nire iparra da, bai komikigintzari baita historia lantzeko moduari dagokionez ere. Historia-eskola inportanteenak han daude, eta dibulgazioak pisu handia dauka. Zentzu horretan, komikiak baliagarriak dira hainbat gertaera azaleratzeko. Entretentitzez gain, edu-

kiak zabaltzea izan behar dute helburu. Hurbileko kontuak erakusteko modu bat dira, ez soilik mundu mailako historia handiak, baizik eta eskualdean gertatuak, bertoko pertsonen bizipenak...

Matxixako eta Sollubeko guduak, Bizkaiko ontzioletako jarduna... Memoriak huts egiten ez badit, gertaera historiko horiez apenas irakatsi ziguten ezer eskolan-eta.

Gertatzen dena da gai potoloak irakatsi ohi direla, topikoak. Ikasleei baliabideak eman behar zaizkie gaiak beste ikuspegi batetik aztertzeke. Topikoetatik ihes egiten saiatzen naiz ni, gai zehatz bat aukeratu eta ikuspuntu desberdina eman, horretarako pertsonaiak baliatuz. Gertatzen ari dena bere moduan interpretatzen du bakoitzak.

Helize abentura-komikian, adibidez, badira

“anaia irlandarrak” lagundu nahi dituztenak, eta badira “alemaniar botek zapal dutako guztiak” babestu eta bereziki Britainia Handiarekin merkataritza-akordioak lotu nahi dituzten “feniziarrak”.

Hala da, bai. “Feniziarrak” terminoa irain moduan darabilte lehenengoek. Sabino Aranek erabili zuen termino hori, *Bizkaitarra* egunkarian plazaratutako *Feniziar bandera* artikuluan, berak sortutako alderdi [EAJ] barruko korrante bat salatzeko, Ramon de la Sota enpresa-buruak ordezkatzeko zuena. [Aipatu artikuluan, “merkataritzaren eta industria- ren sukarrak doilortuta”, beren interes ekonomiko partikularren alde egiten zuten “sasi-abertzaleak” seinalatu zituen Aranek, *Helize*-ren glosarioan jasoa dagoenez].

Komikia abiatzen da Artaun-Mendi baporearen hondoratzearekin. Benetako historia bat



dago gertaera horren atzean.

Bai. Umea nintzenez nire aitxitez kon-
tatzen zigun naufragio batean ibili zela
Lehen Mundu Gerran. Ason izeneko on-
tzian ibilitakoa zen, eta Glasgowra bi-
dean zihoazela jo zuten alemaniarrek.
Komikian gertatzen den moduan, tri-
pulazioa kostaldera gerturatu zuen ale-
maniar urpekariak, haien txalupa soka
batekin lotuta. Horrelakoetan, txalupako
marinel batek aizkora eramaten zuen
beti eskuan, urpekariak hondora joz
gero soka kolpean mozteko.

Itsasoa oso presente dago zure lanetan.

Itsasoari lotua baitago Sopela inguruko
historia. Uribe Kostako herritar askok
egin du lan Ontzidi-Merkataritzan; agian
ez hainbeste arrantzale moduan. *Helize*
komikian ageri den Anton da nire beste
aitxitzeren *alter egoa*. Arrantzalea zen
hura, Armintzakoa. Jendea komikiko pa-
sarteekin identifikatua sentitu dela na-
baritu dut, gertukoak zaizkiola.

Garai gordinak islatu ohi dituzu. Inoiz zentsuratu al duzu zure burua, gai edota pertsonaia bati buruz idaztean?

El pico de los cuervos egin nuenean izan
nuen autozentsuratzeko tentazioa, nola-
bait esatearren. Benetan gertatutakoak
ditu ardatz komikiak, eta protagonisteta-
ko batzuk bizirik daude oraindik, salatari
edo espioi bezala aritu zen gizona, adibi-
dez, tipo ilun samarra bera. Baina izen eta
guzti aipatzea erabaki nuen. Ezin dugu
beti beldurrez ibili. Gainera, kasu horretan
zehazki, aurretik argitaratutako liburu ba-
tean agertzen ziren beraren inguruko datu
guztiak. Zalantzak nituen, frogarik gabe
inor aipatzea arriskutsua izan daitekeela-
ko, baina frogak bazeuden, eta gainera argi
dut komikietan egia esan behar duzula
beti, ezin zara gezurretan ibili.

Kazetaritza kutsua edo oinarri historio-
koa daukaten komikietan jolastu daite-
ke fikzioarekin, gezurrarekin, zelan ez!
Baina irakurleak ondo bereizi behar du
zer den fikzioa eta zer egia, bien arteko
mugak non dauden jakin behar du –ho-
rretarako eransten dira komiki-dossie-
rrak-. Asmatutakoa benetako historia
bezala saltzen denean sortzen da arazoa.
Edo errealitatea gehiegi makilatzen de-
nean idazlearen ikuspegiarekin lotzeko.

Komiki bat dokumentatzeko lana har-
tzen dugunean, dokumentazioak agin-
tzen du, eta fikzioa haren aginduetara
jartzen da.



ONDARE HISTORIKOA

Bilboko Saralegi plazan atera
dion argazkia Begoñari, San Luis
mehategia zenaren tximinietako
baten aurrean. Miribillan
zeuden mehategiek erakarrira
–Malaespera eta Abandonada
izenekoak ere bazeuden–, langile
asko etorri zen auzora bizitzera.

Kazetaritza-generoa aipatu duzu. Frogarik gabe inor seinalatzeko “beldurra” kazetariok ere badaukagu...

Izatez, lotura estua baitago komikigin-
tzaren eta kazetaritzaren artean. Fran-
tzia eredu da horretan ere bai. Askotan
aipatzen dudana komiki bat Etienne Da-
voudeau-ren *Cher pays de notre enfance*
da. Charles de Gaulle presidente ohia
ageri da azalean, besteren odolak zi-
priztinduta, Estatuarekin lotura zuten

erakunde batzuek gerra zikina baliatu
zutela ilustratzeko [Aljeriako gudaren
ingurumarian]. Ikerketa sakon baten
emaitza da, marrazkilariak eta Benoît
Collombat kazetariak elkarlanean egin-
dakoa. Datu oso potenteak jasotzen ditu,
benetan da liburu ona. Ahalmen hori ere
badauka komikiak, hain ezaguna ez den
alde iluna azalertzeko.

Ricardo Sendra marrazkilaria izan zenuen alboan hasieran, eta Iñaket

2008az geroztik. Nola moldatzen zara ilustratzailearekin?

Puntu batera arte elkarlanean aritzen gara, eta hortik aurrera libre dira, ezin baituzu beti marrazkilaria kontrolpean izan. Ni gidoia egiten noa, gauzak deskribatuz, binetak pixkat zehaztuz, elkarriketak... Gero, bakoitzak bere moduan interpretatzen du. Iñaketek zirriborroa egiten du... Tira, batzuetan erakutsi ere ez dit egiten [barreak]. Saiatzen naiz dokumentazio ahalik eta zehatzena bidaltzen, edozein gauzaren argazkiak-eta.

San Frantzisko auzoko [Bilbo] liburutegian lan egiten neuean ezagutu genuen elkar Iñaketek eta biok. Proiektu bat sortu eta Angulemako [Frantzia] komiki azokan aurkeztea erabaki genuen. Baita saldu ere, Cambourakis argitaletxe frantsesari eta Norma espainiarrari [haiek publikatu zuten *Tristísima ceniza*]. Normarekin gerora ere aritu ginen.

“

Parrapean jardunaldietan komiki lehiaketa antolatzen genuen. Batxilergo artistikoko ikasleek euren lanak aurkezten zituzten. Komikia, artea izanik, ez bada batxilergo artistikoan lantzen...

Angulema aipatuta, inportanteak al dira gisa horretako azokak, lanak ezagutarazi edo harremanak estutzeko?

Bai, beharrezkoak dira, alde askotatik. Editorea baldin bazara aukera duzu eskubideak saldu eta erosteko, adibidez. Eta egilea baldin bazara eta bertan mahai bat jarri, komikiak saldu eta sinatuko dituzu, harremanak egin, lagunekin egon... Giro berezia sortzen da, zaletasun beraren bueltako jendea biltzen duena. Diruaga-

tik baino, zentzu horretan komikigintza ez baita oso errentagarria, zaletasunagatik ari dira sortzaileak honetan. Noski, dirua ere inportantea da inork komikigintzan profesionalki jardun nahi badu, baina zaletasunik ez badauka... Argitaletxe askorentzat Angulema edo Getxokoa moduko azokek aukera ematen dute produktuak zuzenean saltzeko, banatzailelerik gabe, eta hori errentagarriagoa da egilearentzat.

Helize Harriet argitaletxearekin plazaratu duzue. Euskarazko komiki asko publikatzen du. Pentsatzen dut euskarri garrantzitsua dela.

Zutabe inportantea da, bai. ‘Harriet’ [Gregorio Muro], pertsona bezala, zikloi bat da. 2015ean sortu zuen argitaletxea, helburu hartuta 1980ko hamarkadan berak eta beste autore batzuek egindako komikiak berrargitaratzea, Frantzian sortutako lanak euskarara ekartzea edota euskal komikigintzaren inguruan dabiltzan egileei leku egitea. Erreferentzia bihurtu da, eskaera sortu du. Garai batean esaten zen komiki irakurlerik ez zegoela, baina zer irakurri askorik ere ez zegoen. Eta beste hanka bat promozioarena da. Kosta egiten da elkarrizketak lotzea, hedabideetako kultura-sailetan komikiak ez du leku propioa izan.

Aldaketarik sumatzen al duzu zentzu horretan? Alegia, komikiak beste “estatus” bat duela, nolabait esatearren.

Prestigioaz ari bagara, bai. Lehen baziurdien komikiak zirela umeentzako tebeoak. Orain “eleberri grafikoak” izatera pasa dira, badute horrelako kutsu zera bat... Tira, termino hori sortu zen estatus intelektuala lortzeko bidean, “arte sekuentziala” bezala, neurri batean. Baina egia da lehen ohikoak ez ziren gaiak eramaten direla komikira, ikuspegi berrietatik. Nire ustez komikiak badu nolabaiteko prestigioa, baina horrekin batera saldu egin behar da, ekonomikoki errentagarria izan behar du. Normakoak esaten zidan eurek gehien saltzen dituzten komikiak ez direla nobela grafiko oso...

Frantzian ez dakit zenbat ale saltzen dituzten horien modukoak –*Persepolis* salbu, agian–, baizik eta komertzialagoak, manga-eta, nahiz eta manga gauza asko izan daitekeen. Azken finean aukera ahalik eta zabalena izatea da kontua, jendeari ikusaraztea edozein gairi buruzko komikiak dituela eskura.

GUDU-ZELAIETAKO KRONIKAGILE

Mikel Begoña Garaizar.
Sopelan jaioa 1964an.

Historian lizentziatua, liburuzaina –Bilboko Begoña auzoko udal liburutegian ari da orain lanean– eta komiki gidoilaria. Ricardo Sendra marrazkilaria argentinarrarekin batera autoeditatu zuen bere lehenbiziko albuma: *Berunezko itsasoa* (Gure Erroak, 2007), Matxixakoko guduaren 70. urteurrenean. 2008an Iñaket ilustratzaile bilbotarrarekin hasi zen elkarlanean, eta berarekin publikatu ditu *Tristísima ceniza* (Norma/Cambourakis, 2011), Sollubeko guduak eta Robert Capa argazkilariaren bizipenak jasotzen dituena; *El pico de los cuervos. Matar a Franco* (Norma, 2013), ustez bi ministerioren eraikinetan –Madrilen– lehegailuak jartzeagatik 1963an atxilotu zituzten Joaquín Delgado eta Francisco Granado anarkisten kasuaren ingurukoa; Ötzi trilogia (Norma, 2015-2019), Kobre Aroan girotutako western ukituko kontakizuna; eta *Helize* (Harriet, 2020), Lehen Mundu Gerraren testuinguruan kokatua, Bizkaiko ontzioletako jarduna ardatz. Tartean, euskarazko beste komiki bat: *Arditutakoak* (Bertsozale Elkarte, 2017), Adur Larrearen marrazkiekin. 2012an Komikeri bloga sortu zuen, euskarazko komiki biltokia (Komikeri.wordpress.com).





IÑAKET Iñaki Martínez Iñaket ilustratzaile bilbotarrarekin 2008az geroztik ari da lanean Begoña.

Manga aipatu duzu, irakurle gazteekin lotzen den generoa. Ez da erraza izango gazteak euskarazko komikietara erakartzea.

Handia baita konpetentzia, Internet-eta, aukera oso zabala dute eskura. Gu gazteak ginenean denbora-pasa nagusietakoa komikiak irakurtzea zen. Erdi ezkutuan egiten genuen, ez zelako "serioa", umeentzako ziren... Gero, helduentzako komikiak ailegatu zirenean, ume eta gazteentzako produktuak apur bat bazterturik geratu ziren, transmisioa eten zen, nahiz eta orain apurka-apurka berreskuratzen ari den. Harrietek berak hainbat komiki plazaratu ditu, Astiberrik ere bai, klasiko batzuk (Asterix, Tintin) berrargitaratu dira, *Xabiroi* daukagu...

Hain justu, Ikastolen Elkartek argitaratzen duen aldizkarian kolaboratu izan duzu. Paper garrantzitsua jokatzeko al du, irakurle gazteak komikira hurbiltzeari dagokionez?

Baietz uste dut. Gakoetako bat da euskal komikigintzan, oinarri sendo eta erregularra. Urtean album bat publikatzen du, hiru hilean behin ateratzen den aldizkariatz gain. Eta proiektuaren inguruan biltzen diren egile horiek guztiak... Zaindu egin behar da.

Eta irakaskuntzan, nola ikusten duzu panorama?

Irudipena daukat komikigintza ez dela gehitxo lantzen. Dena den, Komikeri blogean jaso ditut eskaera batzuk bibliogra-

fiak prestatzeko. Berritzeguneetatik ere eskatu dizkidate gauzak, baita ikastetxe batzuetatik ere, komikia, artea izanik, interesgarria delako klasera eramatea, ez soilik komiki bat nola egiten den lantzeko, baita irakurzaletasuna bultzatzeko ere. Irakaskuntza oso zurruna da batzuetan, eta zaila da material berria txertatzea. Duela urte batzuk [2014-2017 artean] Parrapean jardunaldiak antolatzen genituen Bilbon, komiki-lehiaketa tartean. Batxilergo artistikoa eskaintzen zuten zentroekin harremanetan jarri ginen, tailer batzuk eman genituen, eta ikasleek euren lanak aurkeztu zituzten lehiaketara. Komikia ez bada batxilergo artistikoan lantzen...

Ez dizut galdetu, zer moduz daramazu pandemiaren kontu hau guztia?

Konfinamendua niretzat pagotxa izan zen, denbora mordoa nuen! (barreak). Komikiak patxadaz irakurri behar dira. Presaka bizi gara; gauza gehiegi eta arinegi irakurtzen ditugu sarri. Itxialdian beste erritmo bat hartu genuen, eta etxean nituen komikiekin gozatu egin nuen nik. Margolan bat bezalakoa dira, patxadaz ikusten hasten bazara, beste modu batera preziatuko dituzu. ●



IÑAKET

XAPOKETAN

KARTA-JOKOA

Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu.

ARGIA



azoka.argia.eus

Edukiak
Iñaki Sanz-Azku
biologoa

Ikuspegi pedagogikoa
Lore Erriondo
EHUko irakaslea

Marrazkiak
Eñaut Aiertzaguena
irribarez.info

AZOKAN SALGAIA!
15€

+ 4€ BIDLAKETA GASTUAK



LIBURUA

Amonak erranak



KATAKRAK ARGITALETXEA

AMONARENEAN KEA

ANA IBAÑEZ ELOSUA ETA
DANI MARTIRENA INDART

LIBURU ILETSUAK

XABIER ETXANIZ ERLE

gandea noiz iritsiko irrikaz izaten ginen, elkarrekin joateko amonaren etxera". Hitz horiekin hasten da narratzailea, neskato bat, ilobek amonarekin igandero izaten zuten enkontrua kontatzen, nola prestatzen zien amonak hostopila, nola hartzen zuen anis kopa.

"Oroitzen dut" izango da liburuaren lehen parte honetan esaldi gehienek hasiera. Eta oroitze horretan amona nolakoa zen, nola janzten zen, haren besarkadak... gogoratuko ditu narratzaileak, baina baita ere amonak nola kontatu zien gerran jazotakoa: "Oroitzen dut, amonak errana, karrketan jolasteko gogorik ez zegoela gerran. Oroitzen dut, amonak errana, gerran ez zegoela jaterik galletarik edo pastelik. Oroitzen (...) gerran hil zutela aitona (...) zeharo gautu zirela egunak 1936an".

Tonu simple eta goxo batean kontatzen zaigu amonarekin zuten harremana, eta tonu horretan ere azaltzen zaigu amona hil zela aitonaaren hezurak non dauden jakin gabe. Hots, *Amonarenean kea* liburua gerraren drama, galtzailearen drama, haurrei hurbiltzeko modu zuzen eta egokia dugu, tonu poetiko baretetik abiatuta, idazkerarekin bat egiten duten ilustrazio simple eta iradokitzaileen bidez, familia barruko aspaldiko historia kontatzen digun narrazioa. Alde horretatik liburu hunkigarria dugu; sinpletasunetik eta inozentziaren begietatik erakusten zaigulako amonaren goxotasuna eta amonak bere baitan urteetan gorde duen samina.

Amonarenean kea liburua, baina, bitxia da baita ere historia baten bi

narrazio ditugulako. Lehena aurretik komentatu duguna. Bigarrena haur helduagoentzat (eta helduentzat ere) narrazio moduan kontatua. Antoni Benaiges i Noguésen historia (edo hilketa, hobe esanda) kontatzen zaigu. Aurreko albumeko amonaren senarraren historia. Nola atxilotu zuten maisu izateagatik eta haurrak askatasunean hezi nahi izateagatik. Historia-hilketa gordina. Izan ere, liburuaren amaierako oharrean Dani Martirenak dioen moduan, "maiz izaten da errealitatea fikzioa bera baino gordinagoa".

Apustu ausarta egileena, eta liburu gomendagarria, literatura ikuspuntutik, baita memoriaren gaia haurrei hurbiltzen hasteko ere. ●



MUSIKA

Itxurakeriarik gabea

MONTSE AUZMENDI DEL SOLAR

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak programa labur, eraginkor eta ondo interpretatuarekin gozarazi digu berriro. Inoiz ezin dugu jakin zein zirkunstantziak eragiten duten gure onena ateratzea. Baina egia da atsekabe uneak ez direla beti okerrenak. Adibidez, une latz hauetan Euskadiko Orkestra irudimena eta zentzu ona erakusten ari da abonu programetarako proposamen erakargarriak egiteko orduan.

Oraingo honetan, XIX. eta XX. mendeen artean bizi eta sortu zituzten bi konpositore ikaragarriren obra adierazgarri bana aurkeztu dizkigu. Bi estilo desberdin, iradokitzaileak eta zirraragarriak, entzuteko errazak, eta aldi berean, maila harmonikoan zein soinu-ehunduratan konplexuak.

Jan Sibeliusen biolinerako kontzertuaren bidea ez zen erraza izan. Bere estreinaldia Helsinkin 1903an benetako deskalabrua izan zen. Sibeliusen berak bere buruari agindu zion sekula gehiago ez zuela exekutatu. Ondoren, bertsio berri bat egin zuen. Baina lehenengoa ez zen berriz interpretatu 1991ra arte, eta benetan merezi izan zuen. Emozioz beteriko obra da, non akorde bakoitza, harmonia bakoitza, bihotzera, zorigaiztoko bizitzaren gogortasunera, zuzenean doan.

Euskadiko Orkestraren bertsioa, Augustin Hadelich bakarlariekin batera, hori izan zen, emozioa eta itxurakeriarik eza. Biolinista italiar-estatubatuarra sentimendu hutsa da, artifizialtasunik gabea, hain zuzen ere Sibeliusen musi-

ka behar duena. Teknika hain orraztua duenez, soinuaren ezohiko emaitzari baino ez diogu erreparatuko. Hadelich bere moldakortasuna erakutsi zigun bis bikainarekin: *Louisiana Blues Strut: a cakewalk*, Coleridge-Taylor Perkinson konpositorearena, graziaren eta birtuosismoaren alardea.



Urtarrilaren 29an Donostiako Kursaal. Gasteizkoaren kontzertu bera eskaini zuten Gipuzkoako hiriburuan.

SIBELIUS-EN BIOLIN ETA ORKESTRARAKO KONTZERTUA, ETA DVORAK-EN BOSGARREN SINFONIA

EUSKADIKO ORKESTRA.

ZUZENDARIA:

RUTH REINHARDT.

BAKARLARIA: AUGUSTIN

HADELICH (BIOLINA).

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA
OTSAILAK 4

Kontzertua Antonin Dvorak-en bosgarren sinfonia interpretatuta amaitu zen, konpositorearen ekoizpenean funtsezko obra, non lehen aldiz bere lan bereizgarriaren ezaugarriak agertzen diren. Bosgarren sinfonia, Bohemia jaioterriko –eta beste eslaviar lurralde batzuetako– musika folklorikoa, haren melodiak eta erritmoak, bere estiloaren zati bihurtzen hasi ziren. Lan hori bere laugarren sinfonia oraindik agerikoa zen wagneriar estiloarekiko aurrerapen bat izan zen. Euskadiko Orkestrak, Ruth Reinhardt zuzendariaren gidaritzapean, ñabardura horiek guztiak partituratik atera eta publiko liluratuari helarazten jakin zuen. Zorionak. ●



Palindromoak, mihi zirikatzaileak

MARTA SENDIU ZULAIKA EIDER ITURRIAGA

baiek isurtzen duten urari esker itsasoan urak handi dira. Kantauri isurialdea emari anitzen bidez elikatzen da; Deba, Oria, Bidasoa, Lea, Oka... Itsaso zabaleko ur gazia bezala irudikatu nahi izan dute euskara, eta, euskara den itsaso zabal eta anitza asetzen duten hiru erreka izango dira gaurko gure ur-emari nagusiak.

Hiruerreketa izenburupean euskararen arte-urak erakusketa antolatu du Gasteizko Oihaneder euskararen etxeak. Zalao Ipiña, Alfredo Hernandez *Zirika* eta Bigara dira gure gaurko Urola, Artibai eta Errobi, eta haien bidez euskaraz egiten den eta euskararen inguruan hitz egiten duen arte garaikidea izango da hizpide.

Naturan jatorria duten artelanek Oihaneder etxeko horma zuriak letraz josi dituzte. Salgaien garraioan erabilitako paletekin sorturiko letrak dira *Zirika* artista gasteiztarraren tresnak. *Hitz birziklatuak* erabiltzen ditu artelanetan eta

hizkien arteko jolasen bidez hausnarke-ta eta istorioak kontatzen ditu.

Egurrezko letren arteko hamarnaka jolas aurkezten dizkigu eta horretarako egurraren askotariko lanketak baliatzen ditu: zuloak, sokak, ebakiak... Euskara beste modu batean ikusteko, kontsumitzeko eta dastatzeko aukera ematen digu *Zirikak*, euskararekiko duen amodioa partekatuz eta kutsatuz.

Gasteiztarraren ondotik, Bigara bikotearen *Abere ba, palindromo ilustratuen piztegia* dugu. Oraingoan hizkiak beltzak dira eta animalien ilustrazio koloretsu eta minimalisten bidez lagunduta doaz. Animalia bakoitzaren izenaren atzean beste hitz bat erakusten digu bikote gipuzkoarrak: orro zomorro mozorro, ele bele, airez azeria, eta abar.

Palindromo idatziekin batera anagramak, atsoitzak, kankak eta ilustrazioak ere badira. Testu, hitz eta letren bilgune honetan etxekotua izan nahi ez duten piztia batzuk topatuko ditugu, eta erakuske-

HIRUERREKETA

NOIZ: otsailaren 5etik 28ra.

NON: Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxea.

taren erdian ispilu borobil bat. Izan ere, palindromoak hori dira, ispiluaren bidez ikusi daitezkeen testu aldrebestuak.

Itsaso bezala irudikatzen dugun hizkuntzaren azkenengo ibaiak Zalao Ipiña du izena. Bizkaitarraren *Gorrieri bisuala* artelan bildumaren atzean, hizkuntza baten ezintasun, muga eta jazarpenen inguruko ikerketa sakona dago. Historian euskarak jasandako zapalkuntzak ekartzen ditu gogora Ipiñak, eta eskoletan zigorrerako erabiltzen ziren eraztun eta txanponei egindako argazkiak aurkituko ditugu bere zatian.

Mahai baten gainean borobilean jarrita, eskuz egindako mihi zurien bidez, 2000. urtetik aurrera hil diren munduko hizkuntzen izenak ageri dira. Haiekin jolastuz erakusketaren amaierara helduko gara, eta bertan sabaitik eskegitako mihi luze eta gorrien arteko jolasa topatuko dugu, eta hurbiltzen garen heinean, sorgin ahots batek kontakuko digu galegoz kondaira misterioitsu bat. ●



Bertso-zopa

Osatu Miren Artetxek 2019an Ondarroan botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*. Gaia: Ze polita itsasoa, bera bezalakoia izan nahi dut. Haserre, triste edo pozik, itsasoa beti itsaso.

Bere kresal ta bere _____
 bere zipriztin ta gandu
 inoiz bareegi _____ badago
 edo inoiz indarrrik badu
 itsasoa da beti _____
 izaera bere kargu.
 Gu ere hala ibiltzen gara
 gure mareen esklabu
 eta _____ ala ez gustatu
 gu ere _____ gara gu. (bis)

Batzutan hain huts egoten gara
 ta itsasoa horren _____!
 Hari begira umiltasunez
 ere maiz jantzi gaitzezke
 gu ere hala _____ eman
 ta batzutan indar eske
 _____ premia, gure grin eta
 ahalegin eta neke
 batzutan harro egoten gara
 ta bestetan ez _____. (bis)

Itsasoko ze soberakin du
 gure biziko _____?
 Gure bizitzak biak baititu
 larrosak eta arantzak
 _____ alditan zapuztu ditu
 marejadak esperantzak?
 Denetik baitu gure bizitzak
 une goxo eta _____
 _____ eskerrak barealdia
 ekartzen duen ekaitzak. (bis)



B E R T E U R I A T U N E T A
 C E G N D A T L L G A I N K A
 H A I N B E S T E T V S A B I
 I R A F V B A D U G O Z H B S
 N B R U B P D Z S N T M L O Z
 Z E L D Z A T H B R F G A M P
 D N J J M A L O A B A J A C E
 E T G L B C I D S P G O R T O
 G M U J O B N T I C Z J E G O
 U J S N U O J A L N B B Z B L
 R R T T H E F M G A N I L P A
 E E A J F I N J V U L T N B T
 B L T C P P B A I N A S B P Z
 O E U A E T Z Z E N B A T O A
 I P T E Z F J O M E L S P G K
 G M M I D U N J O D Z O S O A

Sudokua

ERRAZA

				9	7		1	8
8				4	1		5	
		7			5			4
	4				3		2	
		8		4		6		
	9			6			7	
7			5			1		
		4		6	1			2
6	2		3	7				

ZAILA

	9	1					7	2
	7			1		3		
		3	7					
9	4				5			
	3						8	
			9				6	5
					4	1		
		4		8			3	
3	8					7	9	

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



/ Hasi aditzaren infinitiboa. **7. Argazkiko hiriburua.** **8.** Atomo kargatua. / Gaixoa.

GOITIK BEHERA:

EZKER-ESKUIN:

1. Konparazio partikula. / Adi, erne.
2. Preso hartu.
3. Oinarrizko edaria. / Lur mokorrak hausteko lanabesa.
4. Txirrin. / Estrontzioaren ikurra.
5. Galde partikula. / Bukatu.
6. Inolako erlijio erakunderen agindupean ez dagoen sistema.

1. Hautatzen den aldi bakoitza.
2. Liburu euskarria.
3. Ukan. / Ibaietako pasabide.
4. Neonaren ikurra. / Borrorarik eza.
5. Eraikuntzan erabiltzen den arroka.
6. Jarraitzailea. / Burdinaren ikurra.
7. Unnilpentioaren ikurra. / Idor, siku.
8. Atsegin bizi.
9. Txorroa.

EBAZPENAK

Bere kresal ta bere olatu/bere zipriztin ta gandu/inoiz bareegi baldin badago/edo inoiz indarrrik badu/itsasoa da beti itsasoa/izaera bere kargu./Gu ere hala ibiltzen gara/gure mareen esklabu/eta gustatu ala ez gustatu/gu ere beti gara gu. (bis)/Batzutan hain huts egoten gara/ta itsasoa horren bete/Hari begira umiltasunez/ere maiz jantzi gaitzezke/gu ere hala batzutan eman/ta batzutan indar eske/gure premia, gure grin eta/ahalegin eta neke/batzutan harro egoten gara/ta bestetan ez hainbeste. (bis)/Itsasoko ze soberakin du/gure biziko hondartzak?/Gure bizitzak biak baititu/larrosak eta arantzak/zenbat alditan zapuztu ditu/marejadak esperantzak?/Denetik baitu gure bizitzak/une goxo eta latzak/baina eskerrak barealdia/ekartzen duen ekaitzak. (bis)

4	6	7	9	5	1	2	8	3
6	5	3	6	8	4	7	5	9
8	2	7	3	6	6	5	9	
5	9	4	7	4	7	4	7	1
8	7	4	7	1	6	9	6	5
3	5	2	7	1	5	9	8	6
4	6	7	9	2	8	5	1	
3	1	8	3	3	4	6	9	7
2	8	1	5	4	3	6	7	2
8	9	1	5	4	3	6	7	2

ZAILA

6	2	1	3	7	3	7	3	7	3	7
3	5	4	9	6	1	7	8	2		
7	8	9	5	2	4	1	3	6		
5	9	3	6	8	2	4	7	1		
2	7	8	1	4	6	9	6	9	6	9
1	4	6	7	5	3	8	2	6		
9	1	7	8	3	5	2	6	4		
8	3	2	4	1	6	5	9	7		
4	6	5	2	9	7	3	1	8		

B	E	R	T	E	U	R	I	A	T	U	N	E	T	A
G	M	U	J	O	B	N	T	I	C	Z	J	E	G	O
E	T	G	L	B	C	I	D	S	P	G	O	R	T	O
R	R	T	T	H	E	F	M	G	A	N	I	L	P	A
E	E	A	J	F	I	N	J	V	U	L	T	N	B	T
B	L	T	C	P	P	B	A	I	N	A	S	B	P	Z
O	E	U	A	E	T	Z	Z	E	N	B	A	T	O	A
I	P	T	E	Z	F	J	O	M	E	L	S	P	G	K
G	M	M	I	D	U	N	J	O	D	Z	O	S	O	A

ERRAZA
 I HAR, 8. ESTAS, 9. TURRUSTA.
 MARMOL, 6. ZALEA, FE, 7. UNP.
 IZAN, IB, 4. NE, BAKEA, 5.
 1. HAU TALDI, 2. ATRILA, 3.
 GOITIK BEHERA:
 BELFAST, 8. IOIA, ERIA.
 AL, AMAITU, 6. LAIKO, HAS, 7.
 UEA, ALPER, 4. TINBRE, 5R, 5.
 1. HAIN ZURT, 2. ATZEMAN, 3.
 ESKER-ESKUIN:

Desirée Bela-Lobedee

AKTIBISTA AFROFEMINISTA



DIBULGATZAILEA ETA IDAZLEA

Betidanik pentsatu izan dut bizitzako erabaki anitz ez ditudala nik hartu: euren hartu nautela ni. *Negra flor* goitizenaekin blog bat sortu nuen 2011n eta edukietako batzuk biralak egin zirenean jende anitzengana iritsi ziren: nire eta alaben ilearen naturaltasuna berreskuratzeko prozesuan ikasten ari nintzena konpartitzeko beharra nuelako hasi nintzen. Sei hilabete geroago, YouTube-ko kanalarekin animatu nintzen eta afro-ondorengoaren inguruko gogoetak ere publikatu nituen bertan. Gaur egun 18 mila harpidedun baino gehiago ditudan arren nahiko geldirik dago kanala. Edozein modutan, urte hauetako guztietako edukiak ikusgai daude bertan, 300 bideo baino gehiago, guztira.

“Arrazakeria bizi garen gizartearen erritmo berean sofistikatu eta garatzen da”

Negra flor (Lore beltza) goitizenaekin egin zen ezagun Desirée Bela-Lobedee (Bartzelona, 1978) komunikatzaile eta aktibista afrofeminista. Egiturazko arrazakeria eraisteko bidea heziketa dela aldarrikatuz, hezkuntza komunitate sendoa sortu du sarean. *Público* eta RAC1 medioetako kolaboratzailea ere bada.

✂ SAIOA BALEZTENA 📷 JOAN HERRERA

Negra Flor blogaren bitartez murgildu zinen sarean. Zein zen atari horren erronka?

Beharragatik sortu nuen: nire ile naturala berreskuratzeko prozesuan ikasten ari nintzena erregistratu eta konpartitzeko beharra nuen. Nire lagun eta ibilbide luzeko blogari Gisela Sorokak gomendatu zidan atari hori irekitzea, idazten nuena gustuko zuen eta kasu egin nion. 2011 inguruan izan zen eta garai hartan ez zegoen gazteleraz gisa hartako blogik. *Afrohair.es* ataria aurkitu nuen bakarrik, eta horregatik pentsatu nuen egitasmo interesgarria izan zitekeela.

2018an Ser mujer negra en España liburua argitaratu zenuen. Nola bizitu duzu zuk?

Emakume beltza izatea da nik munduan egoteko dudako modua. Nire nortasunaren dibertsitateak errealitatea ikuspuntu desberdinetatik ulertzea ahalbidetzen dit eta uste dut hori sekulako abantaila dela. Bertzalde, emakume beltza izan eta Espainian bizitzeak gizaratearen

iruditeriaren haustura etengabea dakar. Egiten dugun edozein gauzak ekartzen du jendearen iruditeriaren haustura: doinu “afrikarrik” gabe gaztelaniaz solas egitetik hasi –noski, bertako hizkuntza gehiago solastatzen badituzu, jendearen harridura areagotzen da–, eta unibertsitateko ikasketak izatera arte... Gisa horretako makina bat kontuekin borrokatu behar izaten dugu egunero.

Zenbateraino hobetu da testuingurua azken urteotan?

Sineskorregia iruditzen zait egoera hobetu dela pentsatzea. Arrazakeria, desagertzetik urrun, bizi garen gizartearen erritmo berean sofistika-tu eta garatzen delako. Are gehiago, gaur egun, arrazakeria estrukturalak nola operatzen duen jakiteko eskura dugun informazio guztiarekin, albo batera utzi eta existitzen dela ukatzea dagoeneko ez da ezjakintasun kontua: hamarkada anitzetan komunitate afrikar eta afro-ondorengoek nabarmendu duguna ukatzeko erabaki kontzientea baizik.



“Muturreko eskuinaren gorakadak legitimatu ditu orain arte ezkutuan egiten ziren diskurtso arrazistak”.

Muturreko eskuinaren gorakada bizi dugu orain. Nola eragin du horrek?

Muturreko eskuinaren gorakadak legitimatzen ditu orain arte ezkutuan egiten ziren diskurtso arrazistak: gaur egun aurpegia erakutsiz, paparra ateraz eta lotsarik gabe solas egiteko zilegitasuna dute. Baina, politikei dagokienez, ezin dugu erran arrazakeriaren kontra galdu dugunik. Hala ere, egia da orain, adibidez, Tratu Berdintasunaren Zuzendari Nagusia Rita Bosah den arren, eta Antumi Toasijé Arrazakeriaren eta Etniaren Bazterketaren Kontrako Kontseiluaren presidente izendatu duten arren, bide luzea dagoela egiteko.

Minorías liburua argitaratu berri duzu. Nola sortu zen?

Nire editoreak proposatu zidan bigarren liburua bat idaztea eta, bertzeak bertze, gutxiengoez mintzatzea iradoki zuen. Hortik aurrera, ideia gorpuzten hasi nintzen, gutxiengoak anitz direlako, eta ikuspuntu egokia bilatu nahi nuen. Baztertuta eta estigmatizatuta dauden pertsona taldeen bizipenak ikusarazteko helburuz egin dut lan hau.

Saiakeran bazterketa egoerak pairatzen dituzten emakumeekin solastatu zara. Nolako izan da prozesua?

Elkarrizketak aberasgarriak izan dira. Anitz ikasi dut emakumeen bizipenak aditzen. Eta idaztea erronka bat izan da, 2020a markatu duen testuinguru pertsonal eta orokorragatik. Hala eta guztiz ere, idazteko prozesua ere aberasgarria izan da.

Bertze proiekturik baduzu orain eskuartean?

Liburuaren promozioa egiteaz gain, sareko hezkuntza komunitatera eta ikastaroetara bideratzen dut energia guztia. 2019az geroztik kudeatzen ditudan eztabaidaguneak dira, eta aurrerantzean ere jarraitu nahi dut arrazakeria eraisteko hezteko eta ikastea garrantzitsua iruditzen zaienei espazio hori ematen.

Aurreiritziak eraisteko jendeak bertzeon oinetakoetan jartzea ezinbertzekoa da zure ustez.

Ez da ariketa xamurra!

Inolaz ere ez. Kontuan izan beharra dago dakigun guztia horrela ikasi dugulako dakigula. Arrazismoaren kontrako hezi-

keta afrofeministak ikuspuntu desberdin bat eskaintzen du, ez bakarrik erro sakonak dituen ikasketen inguruan, baizik eta baita hagitz sakonak eta jarauntsiak izan diren sinesmen kolektiboen inguruan ere. Gisa honetako gaien inguruko ikusmolde desberdinak eskaintzeak usteen egitura kolokan jartzen du eta ohikoa da erresistentziak aurkitzea...

Amaitu aurretik, feminismoak ere badu zer ikasia honetan, ezta?

Zalantzarik gabe, feminismoak ere asko du berrikusteko. Hasteko, feminismoez hitz egiten hasi beharko ginategi, alegia, ulertuz emakume eta feminitate guztien ikuspuntuak behar dituen mugimendua dela hau. Feminismo bakarrak ez gaitu denok ordezkatzeko, gutako bakoitzak aldarrikapen desberdinak dituen heinean. Eta abiapuntu hori, emakume zuri, cis edo klase erdikoak ez garenok epaituak izan ohi garen bezala, zatiketarik sortzetik urruti, indargune gisa ulertu beharko genuke. Gainontzeko aldarrikapenak eta eskariak sostengatuz emakumeen esku-bideei mesede egingo diegu, sozialki justuagoa izango den gizarte bat bermatzen dugun bitartean. ●



“Miren Larrion bat egitea” egotzi diote Egunean Behin-eko kontua trukatu nahi zuen gasteiztar bati



Gasteizko pottokiak atxilotetaren unean, "Larrion bat egitea" egotzi diote.

Egunean Behin-eko “Patatarik jakintsuenak” taldeko sailkapenean beti azkena geratzeaz nazkatuta, bere lehengusu baten kontua ordezkatzan saiatu da Iruz Urralar gasteiztarra, haren puntuazioa bere izenean agertzeko. Jokaldi ustela izan da ordea. Code & Syntax-eko teknikariek “mugimendu arraroak” sumatu dituzte aplikazioan, eta pottokiekin – munipak, gasteizeraz– kontaktuan jar-tzea erabaki dute. Haiek deskubritu dute

amarrua, susmagarriak egun batetik bestera sei 10eko zituela ikustean, 7tik sekula pasa ez denean. Dato kalean atxilotu dute. Pare bat porrazo eman diote, baina didaktikoak, operazioan borroc-pak suertatu zaizkiolako Urralarri. “Nori okurritzen zaio, gaur arte ezinean ibili ostean bat-batean 10 galdera asmatzea, Jakoba Errekondok berak ere ezagutzen ez dituen landare batzuei buruzkoak tar-tean...”, adierazi du guardiako epaileak. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Oinarrizko informatika


amona

amona.zip



Memetzaindia

Indarraren alde iluna



@Bat_uitero

Desagertutako 800 aitona-amonak 4 urtean behin ateratzen dituzte Benidormeko Batzokitik



Benidormeko 800ak kalera irten ziren azken aldia.

Jose Luis Quintas EAeko osasun sailburuordeak seriotasun osoz iragarri bezala, Benidormen topatu dituzte desagertutako aitona-amonak. Ruzafa kaleko Batzokian daude bahituta. Lau urtean behin baino ez dituzte ateratzen handik, hurbilen duten hauteslekura joateko besterik ez, eta armadun gizonen zaintzapean betiere, bidean despistatu eta Casa del Pueblo batean sar ez daitezzen, atean zain egoten diren putreen “Pasodobleak + txupitoak 3x1” afixek erakarritu. 800ek

datorren astean jasoko dituzte txertoak ertzainekin amaitu bezain pronto. “Segituan, Castroko 4.637 ertzainak baino ez zakigu falta”, azaldu du Osasun sailburuordeak. “Gero aitona-amonak berriz Batzokian sartuko ditugu, 2024ra arte. ETBSat ikusten pasa dezatela denbora, Patxi Alonsoren lehiaketa adibidez, eta ez jendea gauza sakonez pentsaraztea eramaten duten programa polarizatzaile horiek. Eeee, txipiroi, non dago Luis Angel Garrido?! Atera beste carajillo bat!”. ●

OPARITU ARGIA

ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

Puska dezagun izotza





19,5€

%100 kotoi organikoa




Kolore berriak!

Bost kolore aukeran:
Urdina, beixa, arrosa, berdea eta grisa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin, nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

Erosteko: argia.eus/azoka 943 37 15 45

Agroekologia mugimendua
eta  **ARGIA** elkarlanean

Kamiseta erosita, 2€-ko ekarpena egingo diozu agroekologia mugimenduari eta beste hainbestekoa ARGIAri.